




BIZI HEZI

KOMUNITATE INKLUSIBO
ETA EKITATIBOEN ERAIKUNTZA
ETENGABEKO TRESNA





Aitortu – Ez merkataritzarako – Partekatu baimen beraren arabera 3.0. Material hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, beti ere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarritutako beste obra berri bat egiten bada, hau bezalako lizentzi eskuratuta baina ezin da banatu. Lizentzi osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>



Idea: *Assumpta Ayerdi Olaizola eta Maider Sagredo Escudero*

Koordinazioa: *Maider Sagredo Escudero*

Idazketa: *Assumpta Ayerdi Olaizola*

Lantaldea: *Ana Mireya Valverde, Assumpta Ayerdi Olaizola, Beñat Garikano Goñi, Edurne Gallo Santamaria, Idurre Zugazagasti Aja, Iñigo Eguren Valera, Larraitz Gonzalez Gurrutxaga, Leire Citores Martinez, Leire Rodriguez Zubiaurre, Leire San Vicente Carrillo, Luis Andres Sanabria Zaniboni, Maider Sagredo Escudero, Maria Alonso del Val, Miren Martinez Carral, Miren Prieto Lopez, Nere Mendizabal Alonso, Oier Nafarrate Lasuen, Oihana Orkolaga Fernandez, Oihane Amoedo Muiños, Olga Blanco Mendez, Oscar Jara Hollidays, Paloma Martinez eta Sandra Liliana Cuervo Sanchez.*

Lege gordailua: *SS-577-2018*

Itzulpena: *Idoia Larrañaga Hernandez*

Diseinua eta maketazioa: *Iban Buján Otero*

Impresioa: *Digitarte*

Donostia – San Sebastián, maiatza 2018


Argitalpena doan deskargatzeko:

<http://www.emaus.com/>

<https://issuu.com/grupoemausfundacionsocial>

Babesleak






Ekina ezinez egina

“komunitarioak ikusgai egiten du, estatutu ezberdin horrek, beste premisa batzuetan oinarritutako eta beren egunerokotasuna beste oinarri batzuetan bizi dituzten beste mundu batzuen gain-azaleratzea nola egiten duen posible. Handik posible da, aurkeztu ziguten bezain homogenea ez den eta egunero egiten den mundu baten beste ezaugarriak ikustea, eta modernitatea eraiki den eta hegemonikoa egin den ikuspegia alde batera utzita, beste itxura berezi horiek unibertsalak egiteko asmoa izan ordez, singularitate horrek logika-hegemoniko horretan azpi-barneratuak ez dauden munduen adierazpena ere erakustea. Eta mundu horietan, erlazionatzeko beste modu batzuk daudela erakusten duten, gizarte erlazioei eta gizarte egiturei forma ematen dien gizakiak bizi direla”.¹

¹ *lo comunitario hace visible cómo ese estatuto diferente permite la emergencia de otros mundos basados en otras premisas y que viven su día a día sobre otras bases. Es desde allí donde se hace posible ver otras características de un mundo que no es tan homogéneo como nos lo presentan y que se hace todos los días, que está en movimiento, y que a pesar de las miradas sobre la que se ha construido la modernidad y se ha hecho hegemónica, esas otras formas singulares irrumpen no con pretensiones de hacerse universales sino de mostrar cómo esa singularidad es también la expresión de mundos no subsumidos en esa lógica hegemónica y que son vividos por seres humanos que dan forma a relaciones sociales y estructuras sociales que muestran otras formas de relacionamiento”.*

MEJIA JIMENEZ, M.R. (2016): “Las búsquedas del pensamiento propio desde el buen vivir y la educación popular: urgencias en la educación latinoamericana”. En: Revista internacional sobre investigación en educación global y para el desarrollo. 10 zenbakia.



AURKIBIDEA

- | | | |
|----|---|----|
| 1. | Sarrera | 8 |
| 2. | Metodologia | 10 |
| 3. | Komunitate Inklusibo, ekitatibo
eta eraldatzaileak. Zertaz ari gara? | 13 |
| 4. | Ibilbide orria | 23 |
| 5. | (auto) Ebaluazio tresna | 55 |

1. SARRERA

Idatzi hau Bizi-Hezi prozesuaren emaitza da. 2017 urte hasieratik 40 pertsona baina gehiago izan dira modu batean zein bestean prozesuan parte hartu dutenak, bai Euskal Herriko bai Costa Ricako pertsonak. Bizi-Hezi prozesua gure kezken ondorioz sortzen da, kezka pertsonalak zein kezka profesionalak, bizi garen espazio-denbora testuinguruan, senti-pentsa hausnarketa eta ikaskuntza kolektiboak sortzen laguntzeko, norbanakoaren ibilbideetatik eta partekatutako esperientzietatik abiatuz, ikuspegi feminista batetik komunitarioa den horren esan nahiaren inguruan eta aniztasuna onartzen eta balioztatzen duena, baita amestu ditugun Komunitate Inklusibo, Ekitatibo eta Eraldatzaile horiek modu parte hartzailean eraikitzeko bide zehatzen inguruan, nagusiki. Hau da, gure egunerokotasunean, zeharkatzen gaituzten eta komunitateak definitzean eta eraikitzean guk ere sortzen ditugun muga-botere-pribilegio-opresioz kontziente; erritmo eta plano desberdinak multzokatzen dituen prozesu honetan aurkitzen ditugun muga eta zailtasun horietaz kontziente ere, nola deskubritzen, sortzen eta biziz goazen inklusioaren eta ekitatearen parametroak. Laburbilduz, testuingurua nola eraldatzen ari garen eta gu nola eraldatzen ari garen – pertsona bezala eta komunitatean – zaintzaren etika batetik, bizitza erdigunean kokatuz.

Egungo testuingurua horrela labor daiteke: konplexua, desberdinkeria eta gizarte bazterketako egiturazko prozesuen larriagotze testuinguru bezala (kapitalaren akumulazio nabarmen batekin eta beheraka doan gizarte mobilizazio prozesu paralelo batekin); indarkeria matxisten (zuzenak, egiturakoak eta kulturalak edo sinbolikoak) gehiagotze testuinguru bezala; ezberdinaren, atzerritarra den horren, “bestearen” –pobrea bada are gehiago– aurrean beldurraren faktoria bezala; hetero-arauaren eta kapitalismo liberalismoaren inperio bezala; pribatuan eta norbanako modura itxialdia bezala; gizarte eta ingurumen gatazkaren despotilizazio bezala; gure gorputzekin eta naturarekin deskonexio bezala.

Testuinguru honek bere baitan sistema hegemonikoaren mugak eta kontraesanak adierazten dituen arren, bere pertinentzia zalantzan jarriz, irtenbide bezala adierazten diren planteamendu eta neurri asko, gorrotoa, bidegabekeria eta ekitate eza fenomenoek azelerazio eta larriagotze bat besterik ez dira. Baina antzezleku hau zaintzaren etika batetik ere landu daiteke, hausnarketa sakonak egitera, mobilizaziora, konpromiso erantzunkidea eta solidarioa hartzerara eramanez. Era berean, modu kolektiboan irudikatze, pentsatzeko eta eraikitzeko gure gaitasuna inspiratzen duena, hegemonikoak ez diren klabe eta ikuspegietatik.

Hori horrela izanik, Bizi-Hezi prozesua bizipeneko ikaskuntza bat bezala planteatu dugu Herri Hezkuntzatik, tokikoa-global topaketa esperientzien sustapenean oinarritua; teoriko, praktiko, emozional, eta erlaziozko horren integrazioan, ezagutza eta sormen kolektiboan oinarritua, pertsona desberdinetatik abiatuz. Intentzio politikoz beteriko prozesua eta ekintzara bideratua, jakin-boterea-eraldaketa arteko erlazio berri bat sendotuz.

Prozesu horretan sortu diren ikaskuntzak, inklusiotik eta ekitatetik ulertutako gizarte eraldaketa batekin konpromisoa duten talde edo komunitate horientzat ibilbide orri bezala balio izateko asmoz landu dira. Bere izaera autoebaluaziorako tresna bat izango litzateke, hortik abiatuz talde bakoitzak bere diagnostikoa burutu dezake, baita landu beharreko arloak identifikatu, lehentasunezko elementuak erabaki, erronkak, etab. ere. Era berean, ikaskuntzako baliabide bat da, bide finkoak eta estankoak zehazten ez dituelako, beste egiteko modu batzuk esploratzea posible egiten duelako baizik.

Horrela, lehenengo zatian, prozesua bideratu duen metodologia azaldu ondoren, gure hausnarketak partekatzen ditugu, komunitarioa den horren, inklusioaren eta ekitatearen inguruan.

Jarraian, ibilbide orriaren ikuspegi orokorra adierazten dugu, dimentsio ezberdinak – Izan, Jakin, Erabaki, Egin – eta beraien arteko fluxu eta konexioak. Hortik abiatuz, dimentsioen lur-hartutako aurkezpenean sartzen gara: zer esan nahi duten, beren osagaiak nola eramaten diren praktikara eta galdera multzo bat, hurrengo puntuan lantzeko orientagarri izan daitezkeen galderak. Azkenik, autoebaluazioko tresna garatzen dugu, erabilera moduak zehaztuz. Galdera multzoari talde bezala erantzunez, gure komunitateak aniztasuna eta ikuspegi feminista bere identitatean barneratzen dituen horren irudia lortuko du.

2. METODOLOGIA

Prozesu honetan herri hezkuntza egituratzailea izan da maila bikoitz batean: alde batetik, ikaskuntza prozesua bere baitan, bere premisetatik pentsatua eta antolatua izan da; beste alde batetik, komunitate eraldatzaileen eraikuntza kolektiboa posible egiten duen bezala identifikatu eta balioan jarri da.

Ikuspegia eta metodologiaz gain, Herri Hezkuntza pentsatzeko eta bizitzeko modu bat da, hainbat alderdiren kontzepzio holistikoa, historikoa eta dialektikoa batetik: a) errealitatea ulertzea (prozesu historikoa bezala, osotasun bezala eta mugimendu etengabearen dagoena bezala); b) ezagutu ahal izateko berarengana gerturatzea (historiaren eraikuntzan subjektu parte hartzaile bezala); eta c) berarengana ekitea eraldatu ahal izateko (prozesuek eraldatzen gaituzte guk errealitatea eraldatzen dugun neurrian).

Nahitaez feminista den Herri Hezkuntza baten aldeko apustu egiten dugu modu argian, “pertsonen eta kolektiboen arteko erlazioak zuzentzen dituzten opresio anitzen artean dauden komunikazio ildoak eta ahaleginak barneratu eta ikustera eman behar dituen”, eta zehazki “emakumeen menperatze, bazterketa eta diskriminazio modu guztiak inpugnatzen eta horien aurka adierazten dena”.²

Horretarako eskatzen du:

- a) bazterketak zein bidegabekeriak ikustera eman, bereziki, emakumeak izan eta egitearen adierazpenak bezala;
- b) kulturala den hori funtsezkoa, naturala eta aldaezina dela kontzepzioa desnaturalizatu;
- c) historiazioa, emakumeak eta femeninoa den hori menpeko bihurtu zituzten mekanismoak erakutsiz, eta Estatuak eta instituzioek aipatutako opresio hori nola legeztatzen, euskarritzen eta errepikatzen duten erakutsiz;
- d) subjektibotasun bertatik dekonstruitu eta bizitzaren etika batetik eraiki, ez gehiegikeria eta menderatze etika batetik.³

Modu osagarri batean, ezberdintasunaren inguruan kulturartekotasun kritikoaren hausnarketak barneratzen ditugu, “ez da soilik ezberdina den hori onartzea, toleratzea edo barneratzea ezarritako matrize edo egitura barruan. Aitzitik, boterearen kolonia-egituretan inploniatzea da –desberdintasunetik–, erronka, proposamen, prozesu eta proiektu bezala; pentsatzeko, ekiteko eta bizitzeko logika, praktika eta modu kultural anitzak antzezlekuan eta ekitatezko erlazioan jartzen dituzten, egitura sozial, epistemikoa eta existentziatzeko egiturak berkontzeptualizatu eta berrantolatu” planteatzen duelarik.⁴


Laburbilduz, proposamen metodologikoak ikaskuntza gaitasunak eta pertsonen eta kolektiboen boterea askatzea bilatzen du. Modu horretan, norberaren subjektibotasunetik eta bizitako esperientziatik, errealitatea modu kritikoan aztertzea eta bere elkarrekintza eta konplexutasunean arazo bihurtzea; dekonstruitu, eta ezagutza kolektiboa eta eraldaketako proposamen errealak eraikitzen bideratu, bizitzaren jasangarritasunerako.

Ondorioz, ikaskuntza prozesua modu irekian, dinamikoan planteatu da, ez lerrokatua ezta kronologikoa ere, ez dikotomikoa ezta jerarkikoa ere, ez inprobisatua, baina bai malgua. Azken batean, organikoa eta zaindua, intenzionalitate politikoarekin eta praktikara orientatua.

Bere helburua: ikaskuntza esanguratsuak sortu: a) ezagutzen elkarrizketa pertsona parte hartzaileen artean eta bisitatutako esperientziekin, bakoitza bere ibilbidearekin eta norberaren ezaugarriekin, b) naturalizatua, arauemailea eta hegemonikoa den hori zalantzan jartzea, c) elkarrekin bizitako esperientzia eta c) sistematizazioa. Egiteko, erlazionatzeko eta erabakitzeko modu berriak sor ditzaketen eta beste pertsona eta komunitateei inspiratu diezaieketen ikaskuntzak.

Prozesuaren buru Emaús Gizarte Fundazioa izan da, baita dinamizatzaila ere, CEP Alforja erakundearen lankidetzarekin.

Faseak ondorengoak izan dira:



² TORRES, A.F. et alter (2010): “Módulo 6: Metodología de Educación Popular Feminista”. En Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén Ixqik, Alianza Política Sector Mujeres: Escuela de Formación Política Feminista. Guatemala.

³ TORRES, A.F. et alter (2010): “Módulo 6: Metodología de Educación Popular Feminista”. En Asociación Feminista La Cuerda, Asociación de Mujeres de Petén Ixqik, Alianza Política Sector Mujeres: Escuela de Formación Política Feminista. Guatemala.

⁴ WALSH, C. (2010): “Interculturalidad crítica y educación intercultural”. En VIAÑA, J. et alter (ed.): Construyendo Interculturalidad Crítica. Instituto Internacional del Convenio Andrés Bello. La Paz.

- ▶ Teoriak eta arazoak identifikatu landutako eremuetan: dokumentu bilaketa eta irakurketa.
- ▶ Komunitate Inklusiboak, Ekitatiboak eta Eraldatzaileen hasierako definizioa: prozesu parte hartzailea, ondorengo erakundeetako 20 ordezkari: Adsis, Calcuta Ondoan, CEP Alforja, Economistas Sin Fronteras, Gabiltza, Gezki, Goienetxe, Sos Racismo, Txatxilipurdi, Getxoko Udala (partaidetza), EHIGE, Ekipare, Emaús Gizarte Fundazioa, Goiener, GuHaziakGara, Mugarik Gabe eta REAS Euskadi. Definizioarako ekarpenen bilketa mail bidez eta aurrez aurreko 2 tailer, Inklusiboak eta Ekitatiboak izango liratekeen komunitate haien helburuak, baloreak eta printzipioak irudikatzen eta marrazten dira. Aipatutako komunitate horien eraikuntzarako prozesuaren ezaugarrien lehenengo identifikazio bat burutzen da. Komunitate kontzeptu beraren eztabaida.
- ▶ Formazio prozesuaren garapena (200h): aurrez aurreko saioekin, online moduluekin eta formazio bisitekin tokiko, estatuko eta Costa Ricako esperientzia komunitarioekin. Ereku ezberdinetako 18 pertsona 5 hilabeteetan zehar parte hartzen dute: hezkuntza formala eta ez formala, ikerketa zientifikoa, kontsumo arduratsua, lankidetzak, gazteria, feminismoa, gizarte mugimenduak, gizarteratzea...
- ▶ Taldea, bere esperientzietan, desiretan eta ezagutzetan oinarrituz, aurretiko bi urratsetatik ateratako guztia kontrastatzen du, eta hortik abiatuz:
 - Komunitarioa den horren identitate eta emozional inplikazioak identifikatzen ditu,
 - Testuinguru globalaren analisi kritikoa tokiko testuinguruarekin lotzen du,
 - paradigma eta praktika alternatibo globalak, taldekideak parte hartzen duten haiekin lotzen ditu,
 - Komunitate inklusibo eta ekitatiboaren eraikuntza prozesuaren gakoak amesten eta partekatzen ditu,
 - Esperientzien sistematizazioa praktikatzeko du,
 - Inklusioaren eta ekitatearen aldeko eraldaketa kolektiboko esperientziak ezagutzen ditu: Errekaleor, Pico de pañuelo - Eva (Arganzuela auzo espazioa), Adsis, Casa Batsu, Jaurías de comunicación Feminista, Colectiva Caminando- “Calles y cuerpos” proiektua, Colectiva “Chicas al frente”, Jakana, Programa de radio inclusión en hospital psiquiátrico- Grupo Podemos Volar, Guanared, Red. Economía Social Solidaria, Programa de Gestión Local UNED, Taller Migración y Juventud- Red de jóvenes sin fronteras, “Chito Moré” artisautzako eta ekonomia solidarioko kolektibo indigena, organización de mujeres Acomuita Chiroles komunitatean, Viresco Kooperatiba: “La Carpio” komunitatea eta Centro Cívico por la Paz de Santa Cruz –
 - Formazio prozesuan zehar landutako zereginen, hausnarketen, bizipenen, formazio bisiten eta materialen lana, ibilbide orriaren zirriborroan idazten ditu,

En Laburbilduz, sentitu, pentsatu, modu aktiboan entzuten du, bere buruarekin konektatzen du, bere gorputzarekin, taldearekin/ komunitarioa den horrekin, naturarekin, hunkitzen da, galdetzen du, aurka egiten du, elkar trukitzen du, bizi egiten da, eraldatu egiten da.

- ▶ Dokumentu hau gauzatzea, ikaskuntzak jasotzen, prozesatzen eta ordenatzen dituen dokumentua.

3.

KOMUNITATE

INKLUSIBO, EKITATIBO ETA ERALDATZAILEAK. ZERTAZ ARI GARA?

Komunitateaz ulertzen dugu, identitate kolektibo bat – emana, kultura moduan eraikia edo intentziaz aukeratua eta eraikia – partekatzen duten eta elkarrekikotasun printzipioak arautzen dituzten taldeak.

Elkarrekikotasuna, komunitatearen oinarritzko printzipio bezala, bai zuk bai beste pertsonak zerbait emateko duzuela eta jasotzeko behar duzuela esan nahi du, norbanakoaren bai komunitatearen ongizaterako, estuki lotuak daudelako.

Komunitate guztiek gizakiaren oinarritzko beharrak asetzea posible egiten du, modu eta maila desberdinean:

- Pertenentzia zentzua.
- Onarpena.
- Babes eta segurtasuna sentimendua.

Hala ere, Komunitate Inklusibo, Ekitatibo eta Eraldatzaileak irudikatzen ditugunean, adierazitako behar horien asetetasunak esan nahia hartzen du, balore eta printzipio multzo batean oinarrituz bereziki:

Aniztasuna: Onartu, balioan jarri, naturalizatu eta ospatu. Aniztasun bateratzailea.

Feminismoa: Generoen dekonstrukzio eta berreraikuntza prozesu bezala (araua zalantzan jartzea, diskriminazioak, opresioak eta pribilegioak salatzea eta ikustera ematea) eta hortik, pertsonen arteko botere erlazioen prozesu bezala; gizaki guztientzat aukera berdinak eta askatasuna duen gizarte bat sortzeko borrokan. (Casa Batsú, Costa Rica)

Jasangarritasuna eta bizitzaren zaintza erdigunean kokatzea, bere ahulezia eta energia aintzat hartuz. Zaintza (norbere zaintza, elkarren arteko zaintza, naturaren zaintza) aukera politiko bezala.



⁵ Nos acogemos a la visión del Desarrollo a Escala Humana (Max-Neef, M. (1986)), donde se esgrime que las necesidades son pocas, finitas, clasificables y universales. Forman un sistema de nueve necesidades: subsistencia, protección, afecto, comprensión, participación, creación, recreo, identidad y libertad. Lo que varía según la persona y cultura son los satisfactores que se realizan en cuatro formas: en el ser, tener, hacer y estar.

⁶ BOFF, C. (2010) “Decálogo para cambiar el mundo”. Tomado de: IBÁÑEZ, A. (2016) “Un acercamiento al Buen Vivir”, en Revista Internacional sobre Investigación en Educación Global y para el Desarrollo, nº 10, septiembre 2016.

⁷ Hill Collins, P. y Bilge, S. (2016): Intersectionality. John Wiley & Sons.

⁸ PARSONS, T. (2007): American Society. A theory of the Societal Community. Boulder, Paradigm Publishers.

⁹ Mancebo, E. y Goyeneche, G. (2010): “Las políticas de inclusión educativa: entre la exclusión social y la innovación pedagógica”, en las IX Jornadas de La Facultad de Ciencias Sociales de la Universidad de la República, Montevideo.

EMOZIOAK

emozio eta sentipenak adierazteko sakatasunez *helburu eta begirada partekatua zoriontzua aniztasuna eraikitzen eta deserakitzen garapena pertenenencia kide izan konprometitua lagutasuenan entzuna sentitu naiz lankidetzan eskertuta alai* alegría

hazten garatzen elkar ulertzea elkar ikusten motibatuta ahalduntzea indartua ulertua zaindua maitatua gogotsu propósito elkar zaintza querida ilusión segura babesa onartua baliagarria berdintasunean arduraz elkarlana eta laguntza zaintzaile acompañada segurtasuna intención común reconocimiento conectada incluida eraldatzaile jaso eman aske ez epaitua empatia ilusionatuta cariño acogida onarpena giro ona familia libertad fuerza motivación aske amorrue lasai urduri pertenenencia solidaridad comprensión

KOMUNITATEAK

pixua kompartitzen piraguismo taldean zapalduen antzerki taldean auzoan gaztetxean macrobiotikako ikastaroa ikastaroetan ikaskideekin olatu koop kuadrilan hospitalean retiro zen ondartza calcuma lagunekin auzoko parkean artaso amher grupo de mujeres tejedoras jaietan karrerako ikaskideeen piña ekonomia feminista lanean familian saretuz tailerran udalekuetan egb eta institutoan pirata kofradian lakari kooperatiban kontakt dantza taldea voluntariado sare lan talde

Parametro hauetatik abiatuz, pertsona bere dimentsio sozial, ekologiko eta espiritualekin konektatzen da berriro, bere norbanakoaren identitatearen eraikuntzan. Horrela, norberaren askatasunaren (norberaren espazioak eta eskubideak – pribatutasuna, intimitatea, duintasuna, autodeterminazioa, autonomia, aukeratzeko gaitasuna, asetasuna eta gauzatze pertsonala –) eta senti kolektiboaren (elkarrekikotasuna ezberdinen artean eta elkartasuna) artean kontraesanezkoa ez den sintesi bat ematen da. Hain zuzen ere, espazio komunitario horretan pertsonak laguntza sentitzen du, onarpen osoa eta askea izateko eta osotasunez garatzeko energia; horrez gain, pertsonak – ahula eta elkarren menpekoa, ez koiuntural moduan, konstante baizik – komunitatean soilik ase ditzake bere behar guztiak.⁵

Bai “subjektu kolektibo” edo sozialari, “gu” historia sortzaile garenei (inork ez du inor askatzen, elkarri askatzen gara). Bai ere bakoitzaren subjektibitateari, “ni biografikoari”, bere erreferentziak eta ametsak dituen norbanakoari.⁶

Horrela, komunitarioa den ikuspegi honetatik – munduaren hazkunde, eraldaketa eta ulermen espazioa – norbanakoaren autoezagutza eta sendotasun kolektiboa elkarren artean lotzen dira. Prozesu honetan identitate kolektibo komunitario propio bat sortzen doa, norbanakoaren identitateetatik elikatzen den identitatea, xehetasunez aberasten dena bere kideen identitate espektroa geroz eta ezberdinagoa den heinean, eta hedatzen edo zabaltzen dena. Honek erresilientzia eta erresistentzia gaitasun handiago bat dakar, baita ahalmen eraldatzaile handiago bat ere; norbanakoaren eraldaketa, prozesu kolektiboa eta inguruaren prozesua atzeraelikadura etengabe batean inbrikatuz.

Edozein kasutan, komunitateak sortu egiten dira, desegin, une ezberdinak bizi... Hori horrela izanik, hainbat ezaugarri funtsezko bihurtzen dira, komunitate inklusibo, ekitatibo eta eraldatzaileen eraikuntza horretan pentsatzean:

- a) plastikotasuna: beste behar, ikuspegi, jarduerak...barneratzea posible egiten duen forma moldagarria, angelu zurrunen geometria batetik urrun;
- b) bizitasuna: pertsonen eta talde beraren barne erritmoak errespetatuz, kanpoko denboraren presiorik gabe, bizi erritmoei etengabeko egokitzapenarekin;
- c) balentria: ateratzen ez den, funtzionatzen ez duen hori onartzea, esploratzen jarraitzea (galdetuz, sortuz, probatuz, ikasiz, elkar trukatzuz, doitzuz) erlazionatzeko, antolatzeko moduak, erabakitzeak eta lan egiteko, gure printzipioei erantzuten dietela eta denok gustura gaudela sentituz.

Emandako komunitateetan (familia, etnia, bizilagunak, eskola edo unibertsitate taldea) zailtasuna, hemen mantentzen dugun ikuspegitik, pertsonekin konektatzea eta aldatetara mesfidatzea da beren behar, beldur eta desio, prozesuan lagunduz, beste parametro batzuetatik antolatuz bizitza kalitatean (loturak, segurtasuna, elikadura, espazio publikoa bereganatzea, administrazioarekin interlokuzioa...) hobekuntza bat hauteman duten beste taldeen erreferenteak adieraziz. Intentziosko komunitateetan (ikasle, pentsiodun mugimenduak, kultura elkarteak, mugimendu ekologistak, etab.), aitzitik, posizionamendu berdina partekatzen da, batzuetan izaera ideologiko eta globalekoa, batzuetan arazo bezala sentitzen den behar zehatz eta gertuko baten aurrean, batzuetan norbanakoaren desio bat asetzeko moduaren inguruan. Hauen artean, gizartea eraldatzeko borondate batetik sortutako horiei egiten diegu erreferentzia, inklusio eta ekitate terminoetan. Zentzu honetan, intentziosko komunitateetan homogeneotasun handiagoa dago besteetan baino. Gai horretaz kontziente izan behar dugu eta landu behar dugu.

Pertsonak identitate ezaugarri ezberdinak ditugu; testuinguru, egoera eta egiturazko marko ezberdinetan jaio eta bizi gara; norberaren amets, desio eta beldurrak ditugu; elkar gurutzatzen eta horretan guztian eragiten duten kanpo faktoreak ditugu; gure bidea, besteekin, munduan bide bat egiteko gaitasun ezberdinak ditugu. Konbinatzen diren plano eta aldagai ezberdinek sistema honetan pribilegioak eta diskriminazioa sortzen dute, botere ezberdintasunak. Feminismo beltzetik sortzen den azterketa intersekzionala, ekarpen garrantzitsua da:

Intersekzionalitatea konplexutasuna ulertzeko eta aztertze modu bat da munduan, pertsonetan eta giza esperientzietan. Bizitza sozial eta politikoaren ekintzak eta baldintzak, bai eta subjektibotasun berak ere, nekez izan daitezke ulertuak faktore bakar baten bitartez. Faktore ezberdinez osatuta daude modu ezberdin batean eta elkarrekiko eraginkorrek dira. Gizarte ezberdinkeriar dagokionez, pertsonen bizitzak eta boterearen antolakuntza gizarte zehatz batean hobeto osatzen dira, elkarren artean lan egiten eta batzuk besteekin eragina duten hainbat ardatzen bitartez egindako eraikuntzak bezala ulertzen badira; ez ordea, gizarte banaketako (arraza, generoa edo klasea) ardatz bakar baten bitartez eginiko eraikuntzak bezala ulertzen badira. Intersekzionalitateak, tresna analitiko bezala, munduaren eta norberaren konplexutasunera sarrera hobeago bat posible egiten die pertsonari.⁷

Bazterketaren azterketarekin lotzen badugu, egun ikusten dugu “gizarte modernoaren egitura pluralaren ondorioz, inklusioa ez dela honen/bestearen kontu bat, kide izateko eta onarpeneko osagai partzial anitz dituen bat baizik”. Gu eta besteak artean dagoen muga beti ez da berdina, iraunkorra eta lerro bakar batekin, aldagai ezberdinek multzo eta filiazio ezberdinak sortzen dituzte baizik. Beraz, politika espezifikoei tratatutako kolektibo homogeneotan ezin da kategorizatu, testuinguru konplexutasuneko ezaugarri asko aurkezten ditu baizik; bere barne konplexutasuna ere duelarik. Modu honetan, aldagai ezberdinen konbinazioaren emaitza da, logika produktibistekin erlazioa dute, lanaren eta instituzio betekizunen (paperak edo menpeko pertsona modura identifikatzea bezala) inguruan.

Beste alde batetik, “gizarte bazterketa terminoaren erabilerak hainbat arrisku ditu: ordena baztertzailaren onarpena; aktoreen protagonismoaren ezjakintasuna ordena hori aldatzeko; bazterketaren definizio bat onartzea egoera bat bezala, ez prozesu bat bezala; baztertuen identifikazio bat marginalekin edota arriskutsuekin”.

Inor ez da baztertua izaten atributu bezala, ezta betirako ere. Inoiz ez da pertsona baten egoera bat, gizarte prozesu bat baizik, askotan ibilbide espiral bat izaten delarik. Horrela, inklusioa ez da arrisku edota bazterketa egoeran dauden, iritsi berri diren, arauarekin identifikatzen ez diren, etab. pertsonen ahaleginen edo merezimenduz sortzen. Gizarte osoaren erantzukizun partekatu bat osatzen du.

Gure komunitateetan hauetako hainbat pribilegio / diskriminazio errepikatzen ditugu batzuetan. Adibidez, horrelako gaietan: Hizkuntza propioen erabileraren eta sustapenaren kudeaketa; emakumeen, migratzaileen, arrisku edota bazterketa egoeran dauden pertsonen partaidetza orokorra (beharrak, ahotsak, ametsak, koiunturak...); kide berrien, beste sektoreko eragileak barneratzea; guztien ongien banaketa eta erabilera; botere barne erlazioak eta gaitasun eta ezaugarri hegemonikoekin ezaugarritzen ez duen edozein pertsonaren rolak (ohiko moduan maskulinoa den horrekin lotua... teknikoak eta teknologikoak, jende aurrean hitz egitea, lehiakortasuna, azkartasuna, etab.).

Desberdintasuna naturala den zerbait bezala ikustea eta onartzea garrantzitsua da, gainera positiboa da zure begirada berritzen eta zabaltzen duelako, beste erantzun batzuk jasotzeko aukera zabalduz. Hortik abiatuz, erlazio eta antolakuntza marko berriak sor daitezke, komunitatean bertan eta kanpora. Gure muga errealak – denbora, indarrak, dirua, loturak, beldurra, inertzia... –, baina nolabait erlatiboak eta subjektiboak, ikuspegi honetatik modu errazagoan landu ahal izango dira.

Desberdintasuneko elementu batzuek pribilegioak edota diskriminazioak sortzen dituzte, bizi eta kudeatzen diren arabera:

Gutxi gora-beherako edo nolabaiteko informazio mota eskura dezaket komunitate barruan

Aurretik pertsona gehiago edo gutxiago ezagutzen dut komunitatean, eta horien artean, pisu zehatza duen pertsona gehiago edo gutxiago

Nolabait ahaldundua nago/ sentitzen naiz

Nire rola protagonista/ publikoa da komunitatean

Nire izaera irekia edota dinamikoa da gehiago edo gutxiago

Nire komunitate barruan erakunde edo ekimen handi edo txiki bat ordezkatzan dut

Gaztea edo heldua naiz

Gizona naiz edo ez

Heterosexuala naiz edo ez

Erraztasunez komunikatzen naiz komunitatean erabiltzen d(ir)en hizkuntz(et)an

Lana dut ala ez, egonkorra edo ez

Nire egoera ekonomikoa prekarioa edo eroso da (diru-sarrerak, ostalua, oinarritzko beste beharrak beteak, erosotasunak...)

Lotura eta laguntza sare bat izan dut eta dut oraindik, edo ez (familia, lagunak...)

Herrian jaioa naiz edo ez

Urte gutxi/asko daramat hemen bizitzen

Teknologia berriak kontrolatzen ditut edo ez

Sare sozialetan aktiboa naiz edo ez

Nire gaitasun kognitiboak arauri doituak dira edo ez

Gaitasun eta trebetasun artistiko gehiago edo gutxiago ditut

Antolakuntza, planifikazio, koordinazio konpetentzia gehiago edo gutxiago ditut

Jende aurrean eta ahoz edota idatziz, erraz eta lasai adierazten naiz

Ama/aita naiz edo ez

Nire arduran ditut edo ez menpeko pertsonak

Nire egoera irregularra da edo ez (herritartasuna, asiloa, errolda...)

Buru-osasuneko gaixotasunak ditut edo ez

Espazio kolektiboetan partaidetzako esperientzia dut edo ez

Bizitza esperientzia positiboak bizi izan ditut edo ez

Nire, nire inguruko eta egoera globalaren artean dagoen erlazioaz kontziente naiz edo ez

Akademia-formazioa dut edo ez

Formazio ez arautuko prozesuetan parte hartu dut edo ez

Denbora librea dut edo ez

Emozioetatik konektatzeko ohitura/ erraztasuna dut

Zentzu honetan, Komunitate eraldatzaileetan eta bere eraikuntza prozesuetan ekitateaz eta inklusioaz hitz egiten dugunean, honetaz ari gara:

EKITATEA,

justizia kontzeptuarekin eta eskubideen (erresistentzian, eraikuntzan, kolektibo moduan) betetzearekin erlazionatua, berdintasunaren sustapenari erantzuten dio bere dimentsio guztietan.

INKLUSIOA,

zaintzaren etikarekin eta gizarte kohesioko horizonte batekin erlazionatua, gizarte batean partaidetza osoko gaitasunari eta aukerari erantzuten dio.

Batzuetan, desberdina den hori / egin den hori/ jatorriz tratatu den hori, modu ezberdinean tratatzea da, berdintasuna lortzeko.

Ez da soilik hainbat talderentzat onartze edo babes tarteak bilatzea, existitzen den sistemaren barruan.

Aniztasuna onartetik eta politizaziotik eta feminisмотik egiturak berreraikitzea esan nahi du. Oro har, gainerako pertsonen beharrekin, desirekin eta zailtasunekin enpatia eta elkartasuna izatea da. Eta bereziki, sistemaren barruan diskriminazio eta opresio gehien jasaten duten pertsona eta herri horiekin, bai komunitate barruan bai beste inguruetan ere.

Antzezleku konplexu batean, pertsona eta kolektibo guztiekin, guztiengatik eta guztientzat zaintzak, ongi-izatea, partaidetza esanguratsua eta solidarioa, eskubideak eta aukera berdintasuna bermatzen dituzten, funtzionamendu eta antolakuntza praktikak bilatzea da modu kolektiboan.


Parametro hauetatik gizarte eraldaketa, azken batean, hiru planoen artean koherentzia bilaketa erronka bat da: etikoa, politikoa eta pedagogikoa.


Hasieran aipatzen genuen bezala, bizitza erdigunean kokatzeak zaintzaren etika batera eramaten gaitu. Bizitzaren zaintza: nirea, zerbait partekatzen dudana pertsona horiena (afektiboa, soziala, politikoa...), hedapenez, beste pertsona eta herri horiena, zapalduak dauden horietan intzidentzia berezia eginez, eta azkenik, naturarena. Bizitza honi eragindako tratatu txarrak – bere adierazpen ezberdinetan – sortzen digun minak, ekitate eta inklusio ikuspegi eta kontzientzia batetik jardutera eramaten gaitu, gizarte kohesioan ulertuko litzatekeen jarduerak (jarduerak sarean, jarduerak kolektiboak). Hau da, elkartasunean eta elkarrekotasunean oinarritutako komunitateetan, botere indibidualak eta kolektiboak sortzen duen “acuerpamiento”, babes eta zerbaiten parte izatearen sentimendu bat sortzean. Azken batean, identitate indibidual eta kolektiboen arteko tentsio positibo bat duten komunitateak, elkarren artean erlazionatuta daudelarik modu solidarioan.

Hala ere, jarduera hauek benetan kohesio horretara eramateko ezinbestekoa da eraldaketa bat ematea politika mailan. Hau da, beste botere mota batzuk sortzeko eta kudeatzeko beste modu batzuk. Boterea autokontzientziatik; modu komunitario batean eta zaintzaren etika eta konpromiso politiko batetik, kolektibo moduan autodefinitutako beharrak asetzeko boterea; boterea erantzukizunetik bizitzari dagokionez, bere adierazpen guztietan; transmititutako eta partekatutako boterea; boterea gorputzak sendatzetik; botere espirituala, transgresioko bizi energia; zoriontsu izan, zaindu (zure burua ere), maitatu (zu, bestea) sistemari egindako erresistentzia bezala. Botereko beste bizipen batzuk, botereko beste kultura batzuetara eramaten dituen prozesu bat da; erlazio asimetrikoetatik, bazterketa/inklusio patroietatik urrunduz eta bizitzarekin-planetarekin-komuna den horrekin konektatuz, bai definizioan bai gure proposamenen eraikuntza errealean.

Azkenik, politika mailan eraldaketa egiteak, bizitza erdigunean jarriz, sortzeko eta bizitzeko gai diren pertsonak egotea eskatzen du. Hortik, esparru pedagogikoaren garrantzia. Pertsonen eta mugimenduen iruditeria kapitalista eta heteropatriarkala deskolonizatzeko beharra dugu, kontzientzia hartzeko, dekonstrukzioko eta desikaskuntzako prozesu batean. Modu honetan, ezagutza kolektiboa eta eraldaketa proposamen errealak eraikitzea posible izatea beste iruditeria batzuetatik, konfluentzian, sormenean eta etengabeko ikaskuntzan.

Freirek, bertutea, koherentziaren bilaketan zegoela esaten zuen. Bilaketa hori, hain zuzen ere, prozesu bat da. Gainera prozesu horretarako ez dago bide bakar bat, ezta ezarritako sekuentzia ezta erritmo bakar bat ere.





4.

IBILBIDE ORRIA

4.1 IRUDI OROKORRA

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, komunitate inklusibo, ekitatibo eta eraldatzaileen eraikuntza parte-hartzailea prozesu bat da. Gainera, koherentzia etiko-politiko-pedagogiko bilaketan dagoen prozesu bat da. Eraikuntza horretan ezinbestekoa da osagai desberdinak kontuan izatea. Boliviako Hezkuntza Ministerioak (2012)¹⁰ landutako Gizakiaren lau dimentsioetan oinarrituz, osagai horiek lau dimentsioetan multzokatu ditugu:

IZAN

Dimentsio honek, kolektibo moduan ezartzen ditugun printzipioei eta baloreei egiten dio erreferentzia, komunitate inklusibo eta ekitatiboaren inguruan dugun ideia amesteko eta pentsatzeko garaian. Emozioak, espiritualtasuna eta pentsamendua jasotzen ditu. Identitate kolektiboa euskarritzen du.

JAKIN

Dimentsio honetan jakintzaren dekonstrukzio, bilaketa, barneratze eta sormenerako gaitasuna sendotzen dira, zalantzan jartzetik, esperientzien arteko elkarriketatik eta ikuspegi desberdinetatik, hausnarketa-ekintza-emozioa-komunikazioa-interpretazioa barneratuz; norberaren eta errealitatearen ulermenerako eta eraldaketarako.

ERABAKI

Dimentsio honek erabaki hartze kolektiboarekin erlazionatuta dago, komunitateak bere testuinguruan dituen beharrei, gatazkei eta desioei erantzuna emateko. Botere sorrera eta erabiltzea zehazten du komunitatean.

EGIN

Dimentsio honetan lan, mekanismo, sinergia ukigarri eta ukiezinak garatzen dira, komunitatearen beharrak asetzeko.

Dimentsio horiek guztiak zeharkatuz, gure ustez SENTITU dimentsioa kokatzen da. Herri Hezkuntzatik definitzen den moduan, Senti-Pentsatu eraikuntza prozesu batez hitz egitera eramango liguke.

¹⁰ “Proyecto Comunitario de transformación Educativa III”, Unidad de Formación nº 4. PROFOCOM, La Paz, Bolivia. En, AGUIRRE LEDEZMA, N. (2016): “Educación de la vida y en la vida, para Vivir Bien”. En: Revista Internacional sobre Investigación en Educación Global y para el Desarrollo, 10 zenbakia.

Edozein kasutan, dimentsio hauek ez dira egonkorrak eta sekuentzialak, etengabe elkar gurutzatzen eta atzeraelikatzen dira baizik. Alde batetik, hainbat komunitatetan, hasierako inplikazioa Egin horretatik sortzen da, norberarena bezala sentitzen den zerbait zehatz horretatik, eta era berean, beste pertsonekin komunean dagoena, Izan komunitate bat sortzen doa, identitate kolektibo bat; prozesuan autoezagutza eta partekatutako Jakintzak areagotzen dira... Beste zenbait kasutan, balore eta printzipiotan bat egite batetik sortzen da borroka bat, Erabaki hartze bat eta Egite bat... Edo kezka batetik eta hainbat esperientzia ezagutzetik Jakintza bat sortzen da eta honek Egite batera eramaten du... Pertsonak eta testuinguruak desberdinak dira eta bakoitzak leku eta denbora batean eta batetik jarduten du.


Beste alde batetik, logikoa eta desiragarria den bezala, koherentzia baten bilaketaz hitz egiten badugu, Izan dimentsioan agertzen diren alderdiak ondoren, gainerako dimentsioetan islatzen eta zehazten dira, Izan dimentsioak prozesua eduki etikoaz hornitzen baitu. Horrela, bizitzaren zaintza gure komunitateen ardatza bezala ezartzen badugu, zentzua du zaintza garatzea ikaskuntza metodo eta jarreretan, gatazken tratamenduetan, planifikazioan eta egitean. Hori horrela izanik, lau dimentsioek elkarren artean lotuak eta elkarren artean erlazionatuta sortzen duen irudi orokorrak bihotz akastun eta dinamiko bat proiektatzen du, zentralizazio hori islatzen duguna bizitzaren zaintzan, bere adierazpen guztietan, inklusio eta ekitatearen parametroetatik.

Era berean, dimentsio hauek sistema hegemonikoa aztertzekeo balioko dute, edozein gizaki eta gizartean ematen direlako. Baina, horizontea, eta beraz, aipatutako sistemaren ikuspegiak eta lur-hartzeak hemen ekartzen ditugun horietatik oso desberdinak dira. Modu orokor batean, zein balore orientatzen dizkiete sistemako entitateei? Zein pautak beren ikaskuntza espazioek? Zeintzuk dira beren erabaki mekanismoak, beren lidergoak, balioztatzea eta erantzukizunen eta zereginen banaketa? Nolabait, hemen aurkezten duguna, sistema hegemonikoaren izan-jakin-erabaki-egin matrizearen kontra-taula xume moduko bat dela esan genezake.

Sarreran adierazi dugun bezala, dokumentu honen helburua ibilbide orri bat osatzea da, inklusiotik eta ekitatetik ulertuta gizarte eraldaketa batekin konprometituak dauden talde eta komunitate horiei inspiratzeko balio izateko. Horretarako, dimentsio horietako bakoitzean, Bizi-Hezi prozesutik ateratako ikaskuntzak jarri ditugu. Alde batetik, eremu bakoitzera egindako hurbilketa jasotzen da prozesu honen markoan, eta beste alde batetik, lur-hartze praktikoak berreskuratzen dira bere garapenerako. Azpimarratzen dugu: ez dira gradualak, sekuentzialak, ez dute zergatik izan behar baliozkoak kasu guztietan, hausnarketara, diagnostikora, ikaskuntzara, eztabaida kolektibora, esperimentatzera, zorientzera eraman dezaketen aukera ezberdinak dira. Nola egin, gaiak nondik landu, lehenengoa zein, noiz den une aproposa, etab. komunitate bakoitzak une bakoitzean erabakitzen duen horren araberakoa da.

4.2 DIMENTSIONAK LUR-HARTUZ

Dimentsio bakoitzaren egitura.



Dimentsio bakoitzean lantzen diren eremuen aurkibidea.

IZAN dimentsioa

Printzipioak eta baloreak
Identitate indibiduala eta kolektiboa

JAKIN dimentsioa

Ikaskuntza
Esperientziak sistematizatu
Ebaluazioa
Herri komunikazioa eta komunitarioa

ERABAKI dimentsioa

Botere kudeaketa
Rolak eta zereginak
Gatazkak
Planifikazioa

EGIN dimentsioa

Zaintza
Partaidetza
Lana
Ondareak
Sinergiak



- IZAN
- JAKIN
- ERABAKI
- EGIN
- ZAINITZA

IZAN DIMENTSIOA

1. Poliki doan gizarte eraldaketa euskarritzen eta posible egiten duten baloreak eta printzipioak ezartzea, inklusioaren eta ekitatearen parametroetatik.

PRINTZIPIOAK ETA BALOREAK

Kolektibo moduan ezartzen ditugun printzipio eta balore horiek dira, komunitate inklusibo eta ekitatiboaren inguruan dugun ideia amesteko eta pentsatzeko garaian. Eta beraz, gure egitekoan eta erabakitzean islatu behar dira -era berean proiektatu-; gure erlazionatzeko moduan, barrura eta beste pertsona, ekimen eta lurrarekin; ezagutza kolektibo eraldatzailea ikastearen eta sortzearen aldeko gure apustuan.

Inklusioari eta ekitateari lotutako balore eta printzipioen eztabaida eta definizio kolektiboa.

Funtzionamendu eta filosofiar dagokionez, oinarritzko alderdiak dituen ideia multzo adostu bat ezarri modu parte hartzailean. Ez joan maximoetara: hortik zaila da komunitate anitz bat eraikitzea.

1. Gure baloreek eta printzipioek inklusioa eta ekitatea sustatzen dituzte? Balore horietako bakoitzak parte hartzaile guztiei iradokitzen diena jaso dugu? Horren inguruan eztabaidatu dugu ahots guztiak errespetatuz?

Oinarritzko baloreak eta printzipioak modu parte hartzailean ezarri ditugu? Minimoen adostasun bat ezarri da?

2. Baloreak eta printzipioak errespetatzearen jarraipena praxian, baita hauen balioztatzea ere testuinguru aldakorretan.

Jarraipen etengabeko espazioak ezartzea: gure printzipioen praxiaren inguruko berrikuspina eta hausnarketa gure egunerokotasunean eta bere barneratzea planifikazioan (ikus Erabaki taula) eta kudeaketan. Printzipioak eta baloreak gure ebaluazio eskeman kokatu. (ikus JAKIN taula)

Kolektiboaren estrategiak, ekintzak eta erabakiak printzipioetan eta estrategietan txertatzen direla zaintzaren ardura duen "zaintza batzorde" bat sortzea; behar izanez gero, berrikusiak izatearen beharra adieraztea.

Formazioen antolakuntza definitutako baloreen eta printzipioen bereganatze eta interpretazio kolektibo bat bultzatzeko helburuarekin, baita hauen barneratzea ere.

- Formazio etengabea eta kolektiboa feminismoen inguruan, zehazki ekofeminismoa eta feminismo komunitarioaren inguruan.
- Heteropatriarkatuak emakume eta gizonen genero identitatearen eraikuntzan duen eragina aztertu.
- Egoera global eta tokikoaren eta pertsonen eta komunitateen inguruko azterketa bateratuak alternatibean eraikuntzan.
- Formazioa interseksionalitatetik, aniztasuna, pribilegioak eta estereotipoen inguruan.
- Elkar trukea anti-zurrumurru sareekin.
- Formazioa komunikazio ez bortitzean.

2. Baloreen eta printzipioen jarraipen mekanismoak ezarri ditugu praxian? Zaintza batzorde bat sortu dugu?

Komunitate honetan aniztasuna X modura ulertzen da, eta beraz, nire/zure/gure eguneroko praktikak bide horretatik joan beharko du. Ni/zu/gu bide horretatik noa/zoaz/goaz? Gure izatea/identitatea eta gure ekintzak koherenteak dira?

Gure balore eta printzipioen interpretazio kolektiboa eta propioa posible egiten duten formazio-espazioak sortu edo posible egin ditugu? Eta hauek berrikusteko mekanismoak?

IDENTITATE INDIBIDU- ALA ETA KOLEKTI- BOA

1. **Hasiera eta prozesua:** Pertsonen inplikazioa bilatu, beraien arazo edo behar bezala sentitu eta identifikatu duen zerbait zehatzaren bitartez; beste pertsonekin zerbait komunean izatea (bilatzea, desio izatea, kezkatzea...) sentiaraztea; komunitate sentimendua eraikitzen joango da, arazo/behar/ desio horri erantzuna emateko antolatzen eta mobilizatzen diren bitartean, egitean lortutako onurak ikustean (emozionalak -onartua, baloratua, gorpuztua sentitzea; ekonomikoak -diru sarrera sortzen dituzten ekintzak, oinarriko beharrak asetzea, lana eta denboraren esanahia berriz egitea; politikoak -paperak, harremanak, legeak, eskubideak...); norberaren ezagutza eta autoezagutza, konfiantza handituko dira. Era berean, antolatze-ko garrantziaren, elkarrekikotasunaren eta komunitatearen (gertukoa edo zabala - lurra) nahigabeak eta zorientasunak bereak izango balira bezala sentitzearen kontzientzia handituko dira.

Kide diren pertsona ezberdinen esentziak eta bizipenak jasotzeko diagnostiko bat gauzatzea, zein da beraien egoera, zein norabide hartu nahi duten norbanako bezala eta ekimenarekin. Beste pertsona onartzea posible egiten du, beraien sentimenduak, posizionamenduak, ikuspegia, emozioak. Energia eta sentsibilitate ezberdin horiekin, hausnarketak landu eta ekintza bideratu.

Oinarriko beharren eta behar estrategikoen mapa komunitario bat burutzea: pertsona bakoitzak sentitzen dituen eta asetu nahi dituen beharrak azalarazi eta horren arabera, konektatu eta lehenetsi (gehienek hauteman dituztenak, garrantzitsuenak bezala, lantzea errazagoa dena, etab.)

Motibazio ezberdinak bateratzen dituen orientazio eta arrazoi bat formulatu. Eraldaketarako helburu komun eta zehatz bat zehaztu, baina malgutasun gaitasunarekin.

Komunitatearen identitatearen eta malgutasuna, irekiera eta moldagarritasunaren artean oreka dinamiko bat bilatu. Zailtasunen, antzezleku berrien, partaidetza moten edo ikuspuntu berrien aurrean ikuspegi hau izan.

Esperientzia oso zehatzetatik eta praktikoetatik lan egin. Identitatea jarduera kolektibo gaitasunean.

1. Diagnostiko edota mapa bat burutu dugu inplikaturako pertsonen bizi proiektuak, sentimenduak, beharrak identifikatzeko? Pertsona guztiak seguru sentitu dira? Beraiek adierazitakoa jaso eta errespetatu dela sentitu dute?

Helburu komun partekatu bat definitzea lortu dugu? Zehatza da eta landu daiteke? Bidean zehar eraiki, zabaldu eta berrikusi beharko dugula kontziente gara?

2. dentitate kolektiboa bultzatu. Gizakiaren identitatea besteekin eta testuinguruarekin arabera garatzen da; bere oinarrizko beharrak ere komunitatean ase ditzake. Bere aldetik, identitate kolektiboak auto-ezagutzea eta komunitate izendatzea eskatzen du, elkarrekikotasunaren parametroetatik funtzionatzeaz gainera. Horrela, identitate indibidualak eta kolektiboak dinamikoak dira eta elkarren artean elikatzen dira. Autoezagutza eta norbanakoaren hazkuntza, eta komunitatearen sendotasuna elkar lotzen dira.

Amets kolektiboak identifikatu.

Elkarrizketa politikoko jarduerak sortu, komunitatearen ekintzen, prozesu-
en eta ikuspegiaren ulermenaren inguruan.

Komunitatearen iragana aintzat hartu, balioa eman eta memoria oraina
bihurtu; ahal den neurrian jatorrizko pertsona erreferenteekin. Konexioa
eta zentzua sortzen laguntzen du.


Identitate faktoreak sortzea sustatu: talde dinamikan sortzen diren
kodeak (umorea, erreferentziak, sinboloak...), egitean eraikitzen den
norberaren identitatea.

Inplikazioa komunitatean lantzeko tailerrak gauzatu, alde emozionaletik.

Kide diren pertsonen auto-ezagutza sustatu.

Ahizpatasun espazioak erraztu (emakumeen arteko elkartasuna testuin-
guru patriarkalean) komunitate mistoen barruan zein kanpoan. Gertatzen
zaien horretaz edo hainbat gaien inguruan konfiantzaz hitz egiteko
emakumeen espazioa, beste emakumetara gerturatzeko, osasuna, lagun-
tasuna eta alaitasuna lantzeko. Honek norberaren identitatea sendotzen
du eta identitate kolektiboari ekarpena egiten dio.

2.
Ametsak, kodeak eta memoria
kolektiboa identifikatu edota sortu
dugu?
Autoezagutza, bai ahizpatasuna
eta "acuerpamiento" sustatzen
ditugu?



3.
Aniztasuna balioztatu eta inklusioaren alde lan egin. Ezberdintasuna eta disidentzia aintzat hartzen, onartzen eta posible egiten ez badugu, jende, botere eta koherentzia asko galtzen dugu.

Pertsona guztiak ezberdinak gara, baita itxuraz homogeenok diren kolektiboetan ere. Zapalkuntza eta pribilegio aldaera anitz daude, errealitate eta arau anitz bezala. Inklusioa ekintza aktibo bezala, aniztasunean, ahultasunean eta elkarren arteko erlazioetan oinarritutako bizitza moduak praktikan jartzeko.

Kategoria berean (adib. migratzaileak, feministak, jubilatuek, etab.) biltzen den talde batean, pertsona guztiak berdinak ez direla eta ez dutela berdin pentsatzen edo sinisten, eta jatorri ezberdina dutela aintzat hartzea eta onartzea. Partekatzen dituzten puntuak daude, baina aurreiritziak eta estereotipoak ere, zailtasun uneetan modu negatiboan atzeratzen direlarik. Elkarrizketa, formazio espazioak sortu, kulturartekotasun kritikoa, interseksionalitatea eta komunikazio ez bortitzetik.

Mugak eztabaidatu eta definitu: norbait kanpoan uzten al dugu? Zein? Zergatik? Behin betiko? Kanpoan, baina lankidetzan?




Pertsonak bizi proiektu bat dutela berriz ere sinistu dezaten lagundu. Gizarte bazterketa eta zailtasun egoeren zergatiak politikoak direla eta antolakuntza komunitariotik errazago landu daitekeela ulertarazi.

Bai hasieran bai antzezleku berri bakoitzean, ideien eraikuntza kolektiboari lehentasunezko leku bat eman: pertsonen sormena, ilusioak, trebeziak eta gaitasunak nabariak egiten diren eta elkartzaren eta kohesio giro bat sortzen den unea da. Sorpresarako prest egotea, inspiratzen uzteko prest egotea, kokatzeko eta munduarekin erlazionatzeko modu berrien esplorazioan sormen kolektiboarako prest egotea.

3.
Talde heterogeneo bat gara? Zentzu honetan gure mugez kontziente gara edo horretaz eztabaidatu dugu?

Gure komunitateak bere helburu eta orientazioan barneratzen du, sistema hegemonikoan zapalduak eta diskriminatutako dauden pertsonen beharrei erantzuna ematea? Modu mailakatuan, beraien adierazitakoaren arabera, behar funtsezkoak eta estrategikoak konektatuz, ahalduntze eta bizi proiektuen definizio eta onartze prozesuak lagunduz?

Pertsona eta ahots ezberdinen inklusioa bultzatzen dugu gure komunitatean eta proposamen berrien eta ezagutza kolektiboaren sorreran?



IZAN DIMENTSIOA

PRINTZIPIOAK ETA BALOREAK

Zure bizitzarekiko maitasuna, gainerako pertsonen eta herriena, naturarena; baita zapalketa eta sufrimenduek sortutako mina, ekintza politikoaren eta mobilizazio kolektibo eraldatzailearen ongarri bezala.

Komunitatean egon gabe, nola jasan zapalketak?
Nola ospatu? Sakondu? Ezagutu?

Akordio toltecak (GuanaRed):

- Hitzarekin bikaina izan
- Beti ahal duzun hobekien egin
- Ez egin suposiziorik
- Ez hartu ezer pertsonala bezala

IDENTITATE INDIBIDUAL ETA KOLEKTIBOA

Partaideen gorabeherak zaila egiten du identitatea denboran zehar mantentzea.

Komunitarioa den horren eraikuntzan, oinarritzko beharrei erantzutea, behar estrategikoei erantzutea konbinatu, eta beraien artean, loturak ezartzeari beharra bezala, honen gabeziak bazterketara eta ez mobilizazio-erlidaketara eramaten duelako.

Garrantzitsua da bakarrik ez joatea, partekatzea baizik. "Bakarrik azkarrago iristen zara, baina taldean urrunago".

PROZESUAN BARNERATUA, PROPIETATEA DUENA ETA ESPONENTZIATUA SENTITZEN ZARA. ALDE GUZTIAK SENDOTUAK ATERATZEN DIRA. ERALDAKETA EZ DA GERTATZEN SOILIK LEKU/EKIMEN HORRETAN, INGURUNEAN ETA ZUREGAN ERE GERTATZEN DA.

PERTSONA BAKOITZA DESBERDINA DA, ZU ERE. ANIZTASUN HONEK ESPERIENTZIA ETA PROZESU BAKOITZA BAKARRA IZATEA EGITEN DU, GERTAKIZUNAK ANITZAK IZATEA, JASOTAKO ERANTZUNAK EZBERDINAK, ETA SORTUTAKO EMOZIOAK ALDAKORRAK, IKUSPEGI INDIBUAL ETA KOLEKTIBOTIK.

Ezagutzen eta egiten dugun horren inguruan gure arten hitz egitetik, elkarrekin bizi izan dugun horretaz hitz egitera.

Gu garen horren deskubritze ta eraikuntza prozesua, ikusten, entzuten eta sentitzen dugun horren eragina, eta mobilizatzen garenez, elkarrekin egitera eramaten gaitu.

Beste pertsonaren ikuspegiak mugitu egiten gaitu, zalantzan jarri, ireki, nahastu, inspiratzen gaitu.

JAKIN DIMENTSIOA

1. Ezagutza kolektiboa eraiki, erlazionatzeko, egiteko eta erabakitzeko modu berriak eraiki.

IKASKUN- TZA

Ezagutza(k)/jakintza(k) dekonstrukzio, bilaketa, barneratze eta sortze prozesu etengabea, indibiduala eta kolektiboa, errealitateen eta arauen zalantzan jartze etengabea oinarritua, irekieratik (eta elkarrizketak) esperientzia eta ikuspegi ezberdinetara, baita hausnarketa-ekintza-sentimendua-emozioa arteko erlazio dialektikoan ere

Formula propioak, erlazionatzeko, egiteko eta erabakitzeko modu berriak, sortze aldera, inklusiboak eta ekitatiboak.

Ezagutza kolektiboa sortzeko tresnak garatu eta praktikan jarri, bai komunitate anitz batek bere talentu aniztasuna, eremu profesional, bizi eta kultura ibilbideengatik duen jakintzen aberastasunetik, bai kolektibo moduan bizitako esperientzietatik abiatuz.

Pertsona bakoitzak mundura gerturatzeko moduak barneratu eta interpretatu, bereziki emakumeak. Ikuspegi eta bizipen berriak komunitate indigenetatik, gizarte bazterketatik, desgaitasun eta buru gaixotasunetik: zure pertsonatik, zure existentzia eta lurraldetik, zure loturatik gauzak berriz deskubritzea posible egiten dizu. Barneraturik ez dauden kode berriak dira, beste ikuspegi batetik begiratzera eramaten dutenak eta beste mundu bat eraikitzea posible egiten dutenak.

Esperientziak elkar trukitzea ezagutzen elkarrizketatik, bai komunitate barruan bai beste ekimenekin.

Komunitatean zalantzan jartze kritikoa partekatze espazioak/uneak hartzea, kontzientzia kolektibo bat sortzera bideratua.

Mugimendu feministarekin loturak sortu eta bere ezagutza eta proposamenetatik inspiratu. Komunitatearen genero analisi bat burutu.

Trebetasun eta gaitasun pertsonalak (erlaziokoak, teknikoak eta taldekoak) deskubritzeko edota garatzeko espazioak eta jarduerak eskaini, baita autoezagutza sustatzea ere, lan kolektiboari dagokionez. Ahalduz eta bereganatze pertsonaleko tailerrak. Norberarengan sinistu, gure gaitasunak ikusi partekatu ahal izateko eta egiteko modua bilatu. "Nire ekarpena izan daiteke...".

Zeharkako ikaskuntza eta inter-formazioa:

- Komunitateko kideen talentuen mapa gauzatu eta bai burutu beharreko jarduera ezberdinetan, bai barne formaziorako aprobetxatu.
- Ezagutza eremuen arabera batzorde ezberdinak sortu. Batzorde bakoitza, eremu horretan eskarmentua edota interesa duten parte hartzaileekin osatuko litzateke. Modu kolektiboan sortzeko topaguneak /sinergiak bilatuko eta sustatuko dira.

Sormen jaialdiak. Sormena sustatu, kudeaketan, gatazken konponketan, planifikazioan...

Jakintzen transmisioa. Ikaskuntzan botere erlazioak ez ezartzea zaindu: Dinamizatzaileak/ koordinatzaileak/talde motorra ez dira adituak eta gainerakoak hartzaile pasiboak; ezta aurreko kideak, berrien aurrean ere.

Leku, pertsona eta egoera guztian ezagutza dago. Guztiok dugu zer ikasi eta zer eskaini.

Talentu eta jakintza propioak ikustera eman eta balioztatuz, txikiak kontsideratu dituzten/ditugun arren: jatorrizko herrialdeetako jakintzak, bizi ibilbideak, ezagutza praktikoak, zaintzekin lotuak...

1. Ezagutza kolektiboa sortzeko tresnak garatu eta praktikan jarri ditugu? Ikuspegi ezberdinen irekiera eta inklusiotik gauzatu dugu, zehazki sistema hegemonikoan ohiko moduan ahotsik ez duten pertsonen eta taldeen ikuspegitik?

Entzute aktiboa, behaketa eta ilusioa, aurreratu gabe eta suposiziorik egin gabe.

Espero ez dugun / ezberdina den horren aurrean harritzeko gaitasuna. Sorpresa ikaskuntza metodo bezala.

Galderaren pedagogia: hasierako kuriositatetik curiositate epistemologikora (galderak kateatu zergati sakonetara iristeko, ez kausazko erlazio zuzenak eta arruntak, hitza norengandik, nondik eta zertarako sortzen den baizik).

Jakintzen elkarrizketa: elkarrizketa ez zerbait tekniko bezala, ontologikoa bezala baizik (gehiago izatea egiten gaitu, pertsonak izatea).

Ez dago ezagutza berririk, aurretik existitzen den ezagutzarekin erlazionatzen ez denik. Esperientzia ezberdinak bizi, kontrastatu, zabal dadin lagundu. Inspiratzen, txunditzen gaitu, zalantzan jarri eta gure mugak gainditzen ditu.

Zailtasunetatik eta akatsetatik ere ikasi.

Komplexutasunaren epistemologia: irekiera teoria, ezagutza transdiziplinarra, dinamikoa, bizi eta sentitu den horretatik, interpretazio eta ezagutza ibilbide posible ugari eskaintzen ditu, taldearen eta testuinguruaren interesetik definituak, ez marko teorikotik.

2. Komunitateak definitutako balore eta printzipioekin bat egiten duten metodoak planteatu eta jarrera pertsonalak eta kolektiboak erraztu. Herri Hezkuntzan eta ikaskuntza esanguratsuen sorreran oinarritu, ahalduntzeko eta gizarte eraldaketarako.

Modu eta bide berrietara irekia egon, baita desikaskuntza sakon eta jarrai batera ere. Esplorazioa eta sormena.

Testuingurua, baldintzak eta antolamendua ongi irakurri.

Egite horretan ahaldundu: auzoa eraikiaz ahaldundu.

2. Gure ikaskuntza prozesuak, sorpresan, galderan, desikaskuntzan, esperientzian oinarritutako ikaskuntza esanguratsuen sorreran oinarritutako metodoetatik orientatu ditugu? Gizarte eraldaketako muga kontuan izan dugu, inklusiotik eta ekitatetik gure praktika pedagogikoan?

Bizitako praktikatik eta horren inguruan hausnarketa eta interpretazio kritikoa, esku-hartu duten faktore objektibo eta subjektiboen berreraikuntza ordenatu batean oinarritua, ikaskuntzak ateratzeko eta partekatutako memoria eta kontaketa bat sortzeko. Intenzionalitate politikoa eta eraldatzailea du: subjektu sozialak sortzaile bezala eta ez gizarte errealtatearen erreproduktore pasiboak.

ESPERI- ENTZIEN SISTEMATI- ZAZIOA

Esperientzien sistematizazioaren inguruko formazioa burutu.

Esperientzien sistematizazioari espazioa eman, ez prozesu amaieran, bizirik daudela ere.

Behaketa eta erregistorako talde kodeak adostu: (nola jasotzen duzun) zer entzun, sentitu duzun, sortzen eta mugitzen dizun horrek. Testuinguruari, jarduerari, elkar trukeei dagokien alderdiak barneratu, baita talde dinamikei dagokion horiek ere.

Esperientzien sistematizazioaren helburuak eta ardatzak adostu: zertarako egiten dugu? Zein denbora eta alderdi interesatzen zaizkigu gehien?

Esperientzia bizi izan duten pertsonen partaidetza ziurtatu: inork ezin du zure izenean sistematizatu, esperientzia hori bizi izatea eskatzen du.

Lekukotzei garrantzia eman: komunitatearen eraikuntza bizi esperientzia bat izan beharko luke, ez da soilik jarduera bat gauzatzea edo parte hartzea, barneratuta gauden une eta prozesu horretan pentsatzea baizik.

Ikaskuntzak modu kolektiboan atera eta partekatutako kontaketa marraztu.

Ikaskuntzen sozializazioarako komunikazio produktuak, espazioak eta uneak sortu.

1. Sistematizazioari denbora eskaini diogu prozesu komunitarioaren barruan? Sistematizazioan, esperientzia bizi izan duten pertsonen partaidetza ziurtatu dugu? Ikaskuntzak atera ditugu? Sozializatu dugu?

Alde batetik, planifikatu den horri dagokionez, gauzatu den horren lorpen mailaren neurketa kuantitatiboko eta kualitatiboko prozesua edo sistema; beste alde batetik, genero ikuspegi eta ikuspegi feministaren analisiko prozesua edo sistema.

Jarraipen etengabea eta erabaki hartzea, burututakoaren eta prozesuaren eragina, bai oro har gizartean bai komunitatearen jasangarritasun integralarengan.

EBA- LUAZIOA

Komunitate inklusibo eta ekitatiboetz hitz egitean, bi aldagaiak printzipioetan zein planifikazioan barneratuta daudela onartzen dugu, hortaz, ebaluazioaren helburuak eta tresnak ere egituratzen dituzte.

Pertsona eta kolektibo oro, nolabait, bere bizitzan zehar beti planifikatu, berrikusi eta ebaluatu egiten du. Garrantzitsua da, gure identitateari gehien doitzen zaizkion metodo eta tresna zehatzak eskuratzea.

Ebaluazioaren gaineko formazioa gauzatzea.

Zer ebaluatu nahi den modu kolektiboan erabakitzea (guztia ezin daiteke ebaluatu).

Ebaluazio prozesua planifikatu noiz behinka – modu planifikatu batean baina malgutasun batekin -, ebaluazioari denbora eskaini.

Genero ikuspegia eta ikuspegi feminista barneratu.

Jarraipen etengabea eta dagokion erabaki hartzea. Espazioak hornitu, bai indibidual bai talde izaerakoak, konfiantza, segurtasun eta lasaitasun klima bat sortzeko egokituak. Garrantzitsua bada espazio desberdinak antolatu: emakumeak soilik, talde txikiak, etab.

Kide guztien iritziak, balorazioak eta ideia guztiak jaso, bereziki ohiko moduan ahotsik izaten ez duten horiena. Honek ebaluazioa guztiz alda dezake, lehen ikusten ez ziren alderdiak hauteman daitezkeelako.

Komunitatea bere osotasunean non eta nola gauden horren balorazioa entzun eta jaso.

Planifikazioaren helburuak eta adierazleak kontuan hartuz, lorpen maila eta ikaskuntzak aztertu. ERNE: hasierako helburuak lortzean, prozesua, taldearen zaintzak, pertsona berrien akonpainamendua jakintza berrien transmisiorako... ahaztu daitezke. Helburuak eta adierazleak taldearen eta bertako kideen osasunera zuzendu beharko lirateke, baita printzipioen eta baloreen praxira ere.

Prozesuaren eta eskuratutako eta partekatutako balorazioen ikaskuntzak identifikatu; eta komunitateari itzuli, fase barriaren orientaziorako oinarriak finkatzeko.

Lorpenak ospatu.

Berriz asmatzera irekia egon. Inora eramaten ez duen egoera bat gehiegi ez luzatu.

Ebaluazio prozesuaren konklusio – ikaskuntza eta gomendioen memoria bat burutu.

Ebaluazioaren gomendioak partekatu bizitako horretatik.

1.
Komunitateko kide guztiak modu ziur batean, konfiantza eta errespetuz, inplikatzeko dituzten eta ikuspegi feminista barneratzen duten ebaluazio uneak eta tresnak finkatu ditugu? Praktikan jarri dugu?

Lorpenak modu kolektiboan ospatu ditugu? Ebaluaziotik ikaskuntzak eta konklusioak atera ditugu? Erabaki komunitariorako espazioak sortu ditugu, planifikazioan barneratzeko?

KOMUNIKAZIO HERRIKOIA ETA KOMUNITARIOA

Transmisio, hezkuntza, ikustera eman eta sozializazioko praktika multzoa. Sistemaren analisi kritiko batetik abiatzen dira eta pertsonak eta kolektiboak, gizarte prozesu hegemonikoen erresistentziaren eta eraldaket

1. Analisia

Komunikatu (hitzezko, ez hitzezko, irudiak eta idatzi moduan) komunitatearen printzipioak eta baloreak praktikan jartze horretatik.

Zein iruditan eta zein irudirekin erreferente izan nahi dugun pentsatu. Gure posizionamendua eta idatzia da: nola aurkezten garen. Helburua: komunitatea egitea.

Kanpoko den horren errealitatea eta jarrerak aztertu.

Barne eta kanpo komunikazioa lotu.

2. Mezua

Hegemonikoak ez diren esperientziak eta ideiak ezagutzera eta ikustera eman eta existitzen direla adierazi, baita komunitate sentimendua eta bizipena sortzeko aukera ere, ekitate eta inklusio parametroetatik.

Komunitarioa den horren eraikuntza prozesuan sortzen den gozamena eta norberaren garapena transmititu eta partekatu.

Sinergiak, topaketa eta elkartasuna sortzeko gaitasuna komunikatu.

Inklusiboak eta ekitatiboak ez diren praktikak eta markoak ikustera eman eta salatu.

3. Hizkuntza / Tonua

Ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia eta ikusizko hizkuntza argia eta erraza erabili.

Komunikazio irizpide inklusiboak eta ez sexistak sortu. Estereotipoak hautsiz eta aurreiritziak gaindituz.

Hitzezko eta ez hitzezko komunikazio kodeen arteko sintonia mantendu.

Zaintzak izendatu.

Ideiak eta proiektuak komunikatzeko garaian zehaztasunak eman eta berotasuna adierazi.

4. Jarduerak

Sormena erabili eragina sortzeko, produktu-mezuaren "merkantilizazioan", "penan" eta biktimismoan erori gabe.

Esperientziak, hausnarketak, bizipenak partekatzeko eta elkar trukatzeko foro parte-hartzaileak antolatu jakintzen elkarrizketatik. Komunitatean barruan eta beste gizarte ekimen eta mugimenduekin.

Jarduera txikiak balioztatu.

Tokiko inguruan eragin. Itxaropena mantentzen laguntzen du.


Espazio komunak eta edukiak zabaltu eta partekatu.

1. Gure testuinguruaren eta gure komunikazioarekin bilatzen dugun horren analisia burutu dugu? Komunikazioa erresistentziarako eta eraldaketarako estrategia bat bezala ulertzen dugu?

2. Gure mezuak esperientzia ez hegemonikoen salaketa eta ikustera ematea biltzen ditu? Mezuak inklusioa, ekitatea eta sinergiak sustatzen ditu?

3. Gure komunikazioa argia, positiboa eta kartsua da? Modu koherentean jasotzen du zentralitatea zaintzan?

4. Gure komunikazio ekintzek elkar trukea, gertukoa den hori, sormena sustatzen dute, aniztasunetik eta ekitatea txertatuz?



JAKIN DIMENTSIOA

IKASKUNTZA

- Sentitzeko, pentsatzeko, hausnartzeko, gizartea behatzeko, enpatizatzeko, ekiteko, komunikatzeko denborak.
- paseoa burutik: por la mente: edozein bidai edo elkar trukek elikatzen gaitu, ezagutza ematen du, inork kendu ezin digun aberastasun hori, zure buruarekin eta beste pertsona eta herriekin elkarbizitzen erakusten dizu.
- erreferente gutxi daude beste parametroetatik eraikitzeko.
- Munduaren irakurketa testu aren irakurketaren aurretik dago (Freire). Hezkuntza ez da testuetatik abiatzen, hauek munduaz egiten duten errepresentazioa kodifikatzen dute baizik.
- Eroso gunetik atera (pertsona bakoitza eta komunitatea bera): ariketa kontziente bat burutu, nolabait behartua, beste ohitura bat sortzeko, erlazio eta antolaketa moduen beste memoria bat.

EXPERIENTZIEN SISTEMATIZAZIOA

Prozesuak sistematizatzen joatean, gutxiago kostatzen da funtzionamendua mantentzen joatea, ondorioz, pertsonen parte hartzean ahalegin gutxiago eskatzen du. Horrez gain, informazioa partekatzeak eta bizitako horren interpretazio kolektibo bat izateak, barrura begira desberdintasun gutxiago egoten laguntzen du, aurreko kideen eta berrien arteko salto txikiagoa.

Esperientziak berreraikitzean hitz egiten uztera eramaten gaitu, gure ahotsak entzun.

EBALUAZIOA

“ez duzu porrot egiten ahalegintzeari uzten diozun arte”

Ezer ez da “berdin da”.

ERABAKI DIMENTSIOA

1. Lidergoa: Botereko eta boterearekin beste erlazioak esperimentatu, komunitatearen funtzionamenduan erlazio ez asimetrikoak ezartzeko helburuarekin. boterearen inguruko hausnarketa kolektiboa: norberaren, gainerako pertsonen eta kolektiboaren boterea aintzat hartu eta desberdindu. ZEIN motatako boterea nahi dugu eta zertarako. boterearen erabilera deszentralizatzea. Lidergoak partekatu, boterea partekatu. Deskonpetitibizatu esparru indibidualean eta komunitate bezala.

BOTERE KUDEAKE- TA

Boterea erresistentzia aktiboan eta kolektiboan dago. Bere oinarrian dago bizitzaren zaintza.

Nola lur-hartzen den...

Lidergoaren eta boterearen inguruan hausnarketa kritikoko espazio monografikoak sortu.

Lidergo estiloan edo motan aldaketak planteatzen badira, erresistentziak sor daitezkeela kontziente izan. Doikuntzak barneratu eta beharrezkoa balitz, kanpoko bitartekariaren beharra balioztatu.

Taldean dinamizazioari, erraztasunari, lidergoari buruzko formazioa posible egin.

Sentsibilitatez eta jatorriz anitzak diren talde motorrak finkatu, ekitatiboak eta esanguratsuak. Lider bakarraren irudia saihestuz.

Lidergoa eman taldeetan ibilbidearen hasieran, esperientzia handia duten pertsonen laguntza alde batera utzi gabe. Mentore plana: erreferente berriak sortu, pertsona ezberdinek txandaka laguntzen duten beren eskarmentuaren arabera. Sendotu, sendotu, sendotu beste hainbat eskutan askatuz eta uzten joateko. Erreferente feministak sustatu.

Auto-ezagutza, enpatia, asertibitatea eta malgutasuna sustatu.

1. Hausnartzeko eta esperimentatzeko mekanismoak sortu ditugu, ekitatean eta inklusioan oinarritutako beste botere moduekin?

2. Erabaki hartze kolektiboa: kolektiboa osatzen duten pertsona guztiek, komunitatearen gaineko erabakietan parte hartu dutela sentitzeko mekanismoak ezarri, aukera berdinean, askatasunez eta modu arduratsuan.

Nola lur-hartzen den...

Erabaki, hitz egin eta partekatzeko sistemak modu kolektiboan definitu; osatzen duten pertsonen antolamendu kulturaren eta komunitate bezala nolakoak izan nahi dugun horren arabera.

Adostasuna beharrezkoa? Ados ez dagoen horren isiltasuna ekar lezake, baina ez du prozesua oztopatu nahi; erabakiak atzeratu ditzake. Negoziazioa? Bozketa?

Non erabakitzen da? Erabakiak hartu bizi den lekuan, bizitza gertatzen den tokian, ez beste inon.

- Batzarrak erabakitzeko espazioak dira? Batzarrak informaziorako espazioak soilik ez izatea zaindu, edo erdi-itxiak diren proposamenak abalatzeko soilik, asimetriki sortuz, ez izatea hainbat ahotsek soilik betetzen duten batzarrak.
- Bitarteko espazio batzuk ezarri al daitezke, txikiagoak, erabakitzeko, proposatzeko? Zer erabakitzen da batzordeetan edota talde motorretan?

Espazioak ezberdindu: erabaki estrategikoak/ erabaki operatiboak/ batzorde arteko koordinazioa.

Bileren eta espazioen errutina orokor bat ezarri, baina malgua izan eta beharren arabera bildu.

Taldeak edo batzordeak hiru pertsona baina gehiagor osatzen saiatu.

Erabaki hartze eta proposamen espazio guztietan emakumeak egotea ziurtatu.

1. Erabaki sistemak modu kolektiboan eta parte-hartzailean definitu ditugu?

Hauek kide guztien partaidetza posible egiten dute erabaki hartzean, tresnen, interakzioaren eta espazio egokien bidez?

Hartutako erabakiak abian jartze edo betetze mailaren jarraipena burutzen da? Hauen inguruko erantzukizun indibidual eta kolektibo sentimendua sustatzen da?

Zein denbora eta erritmo finkatzen dira? Erabakitze erritmoak zaindu: estrategikoak edota gatazkatsuak, presazkoak, txikiak edo errazak diren puntuak identifikatu; gai bakoitzari beharrezkoa den espazioa eman, hainbat puntutan ez luzatu (makro-assembly metafisikoak edo gatazka pertsonalen inguruan) eta gero azkar erabaki edo erabaki gabe utzi denbora faltagatik; beharrezkoa bada beste saio edo espazio batera eraman.

Kide guztien erantzukizuneko sentimendua sustatu hartutako erabakien gainean eta komunitatearen bizitzaren gainean: komunitatea guztiak gara, nik nire erantzukizunak onartu behar ditut eta gainerakoei beraien eskubideak eskatu ahal/behar dizkiet.

Erabaki hartze sistemarekin, ezinbestekoa da, erabaki horien abian jartzea eta errespetuaren jarraipena definitzea. Hartutako erabakiak aurrera eramaten direla ikusteak, kide guztien kohesioa eta erantzukizuna hartzea sortzen dute, komunitateari dagokionez.

Nork parte hartzen du erabakietan? Pertsona guztiek landu beharreko alderdi ezberdinetan parte hartu eta ekarpenak egin ditzaketela ziurtatu – horrela nahi badute eta horretarako modu ezberdinak eskainiz.

- Iritzi aniztasuna eta ezberdintasuna ez ukatu. Argudio desberdinak eta berriak kontuan hartzea prest egotea.
- Garrantzirik ez eman azalpenak ematen dituen pertsonari, edukiari baizik.
- Partaidetza orekatu bat ziurtatzeko neurriak batzarretan eta bileretan: bi esku-hartze gehiago egon arte ez hartu berriro hitza, txandak generoaren arabera, esku-hartze denbora mugatzea.
- Partaidetza tresnak batzarretik haratago: aurretiko lana talde txikietan, ideiak adierazten marrazkia edo antzezlanak, proposamenen aurkezpena amaitu eta berehala ez eskatu posizionamendu edo bozketa bat, hausnarketarako denbora bat eman...
- Arrazoia izan nahi ekidin eta hausnarketak-jarrerak-erabakiak nire egia bidean orientatzea-zuzentzea saihestu.
- Batzarrek prestatu gabe ez bertaratzea, eta bere jarrera ez izatea batzarrean ez balego bezala.
- Talde motorra badago, dinamizatu, bultzatu eta helburuak gogorarazi ditzake, baina erabaki hartzea ez du zuzendu behar.

3.

Informazioa: botere erlazio asimetrikoak saihesteko eta partaidetza ekitatibo bat bermatzeko helburuarekin, informazio esanguratsua kide guztiengana modu errazean eta gardentasunez iristen dela ziurtatzea funtsezkoa da.

Nola lur-hartzen da...

Informazio garrantzitsua (kontaktuak, plana, helburuak, kontuak argitzea) gardentasunez eta irekitzeko moduan kudeatzea, fluxua eta transmisioa bermatzea: email partekatua, ohar-taula, artxibo eskuragarriak...

Informazioa ulertzeko mekanismoak ezarri: itzulpenak, grafiko eta irudiak, eskemak, hizkuntza ez teknikoak, talde txikietan gai konplexuen azalpena (adib. kontuak argitzea)...

Erabaki hartzearekin erlazioatutako informazio eta proposamenak partaide guztiei helaraztea, aurretik aztertze behar duten epearekin.

Burututako analisi laburpena eta bereziki, kide guztiei hartutako erabakiak adierazteko beharrezkoak diren neurriak hartu.

3.

Informazioa kide guztien artean banatzen da? Informazio hau eskuratzeko mekanismo ezagunak eta egokiak daude edo, esku-ratzeko desberdintasunak sortzen dituzten, eta beraz, boterea sortzen duten kanal informaleen bidez ematen da?

Hizkuntza kide guztientzat ulertteraza izatea zaintzen da?

ZEREGI- NAK ETA ROLAK

Rolen eta zereginen adostutako orekak ezarri, identifikatu eta potentzialtasun ezberdinekin armonian jarri

1. Zereginak eta erantzukizunak ongi zehaztu (baita bere loturak eta fluxuak ere, koordinazioa eta eragina gainerako zereginetan).

Erantzukizunen eta zereginen taula adostu eta zehatz bat burutu, guztiak zehaztuak azalduz. Taldeetan antolatu (komunikazioa, logistika...).

Zeregin eta erantzukizun horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak jaso: denborak eta ordutegiak, kompetenziak eta trebeziak, mugikortasuna, pertsona kopurua, segurtasuna, akonpainamendua edota koordinazioa ...

Hainbat zeregin eta erantzukizun daramaten karga emozionalaren eta dedikazioaren inguruko gure hautemateen gainean eztabaidatu.

Kideek onartzen/hartzen dituzten rolen partaidetza mapa bat burutu. Zein dira gure indargune eta ahuleziak komunitate bezala?

Trenaren dinamika: zuk zein leku betetzen duzu tren honetan (komunitatea adibidez adieraziz)?

Gure komunitatean hainbat rolen gizarte balorazioko eskala errepikatzen dugun berrikusi.

1. Zereginak eta erantzukizunak zehaztu ditugu adostutako taula bat definituz, baita aurrera eramateko behar diren baldintzen taula bat ere?

Rolen inguruan, hauen balorazioan eta kargak nola hautematen direneztabaidatu dugu? Erabakirik hartu dugu horren inguruan?

2. Erantzukizunak banatu norberaren eta gainerakoaren gaitasunen eta mugen ezagutzetik eta onarpenetik; baita kolektibo moduan lehenetsi diren jarduera eremuekiko errespetutik.

Nola lur-hartzen da...

Zer egin dezaket” galdetzen duen eta zereginak antolatzen duen pertsonaren arteko botere erlazioa aldatzen joan. Kolektibo moduan zehaztutako dedikazio minimoen eta maximoen barruan, eta komunitatean ere definitutako erantzukizunen eta zereginen barruan, pertsonak modu askean erabakitzen du bere intentsitatea (konpromisoa hartzen duen lanean minimoak eta maximoak) eta planoak (zereginak eta erantzukizunak onartzeko gai den edo onartu nahiko lituzkeen, zeregin eremuak eta motak). Komunitatea zerbait organikoa eta arina izatean, konpromisoak pertsona bakoitzaren bizi egoeretara doitzen joango dira, komunitatearen egoera eta unearen gaineko elkarriketa ireki batean, eta sormenezko moduan, parte hartzeko edota lan egiteko moduekin pentsatuz eta esperimentatuz.

Gaitasunak eta trebeziak sendotu eta erabili, baina elementu motibatzaileak (gogoak, desioak, kezak, beharrak...) identifikatu, berria den horren aurrean irekitzeko eta gune erosotik edo rol ezagunetik ateratzeko.

Profilen aniztasuna zaindu (adina, genero, ibilbidea, gaitasunak, kultura... arabera) eta aurrez hartutako eta naturalizatutako rolak gaitatu. Kulturarteko eta belaunaldi arteko eztabaidak sortu, biak emakume eta gizonekin, arauari dagokion hautemate eta bizipenen gainean. Entzuetatik eta errespetutik galdetu (baita gure buruari ere).

“Soyla” irudia ekidin: Hau egiten duena, hori egiten duena, bestea egiten duena ni naiz (emakumea): banatu. Paper hori dutenak beti pertsona berdinak al dira? Zein dira hauen profilak?

2. Zereginak, erantzukizunak modu irekian eta kolektiboan banatu ditugu; pertsona bakoitzaren konpromiso, gaitasun eta kezken arabera; komunitatearen beharrek eta helburuekin orekan?

Zereginen esleipen definitibo eta beharrezko batekin haustea planteatzen dugu, naturalizatutako rolen arabera?

Zeregin indibidualak edota taldekoak banatzerako garaian, kide ezberdinen partaidetza eta lan erritmo eta kultura aniztasuna. Zeregin eta erantzukizun bakoitzaren helburuak eta epeak modu argian eta bateratuan ezarri, prozesuen eta komunitatearen zaintza beti ardatz eta jomuga bezala izanik.

Lan kargak ez konparatu.

Zereginak ez bikoiztu.

Erantzukizunak eta zereginak banatzeko garaian, bikoteka edo hirunaka egin, hauetan aniztasuna eta ekitatea ziurtatuz. Talde txikietan antolatu eta zereginak praktikotasunaren arabera izan arren, komunitate ikuspegia ez galdu.

3. Txandakatzea definitu

Zein helbururekin txandakatuko dugun definitu: zeregin guztiak ezagutu eta baloratzeko, zeregin guztiak burutzen ikasteko, komunitatearen jasangarritasunerako, konpetentziak eta trebeziak garatzeko...

Zein erantzukizun eta zeregin txandakatu ditugun identifikatu eta txandakatearen planifikazioa burutu.

Batzordeetan (zaintza, komunikazio, planifikazio, ekonomia... batzordeetan), talde motorrean, beste elkarte eta foroetan ordezkaritza, eta dinamizazio taldeetan erantzukizuneko zereginak zehazki txandakatu.

Une bakoitzean taldearen erdia soilik txandakatu, zeregin edo erantzukizun bat betetzen zuten eta sartu berriak diren pertsonen arteko zubi bat egon dadin.

Eguneroko, partekatutako, espazioaren prestaketako zereginak txandakatu edo txandak ezarri: garbiketa (lokalean, ekintzetan...), sukaldea, erosketak, mantenua...

Ez jarri aldi berean martxan, zereginen banaketan eta lidergo estiloan eta lan egiteko moduan aldaketa sakon bat. Finkatu lehenengo, talde berriak edo laneko ikuspegi berria. (txandaka aldatu)

3.
Zeregin eta erantzukizunen txandakatze sistema bat ezarri dugu modu kolektiboan eta parte hartzailean? Aplikatzen ari gara?

GATAZKAK

Hainbat pertsonak eztabaidatu, erabaki eta modu kolektiboan egitean, modu naturalean ematen diren gatazka, tentsio eta arazoak; beraien konplexutasun eta aniztasunarekin, karga emozionala eta ahuleziarekin.

Gatazka hauek eragiten dute:

- a) ikaskuntza aukera bat, indibiduala eta kolektiboa;
- b) printzipioen eta praktikaren arteko koherentzia erronka bat; komunitatearen aberastasun bat, xehetasunak ematean eta beste ikuspegi eta erreferenteen aurrean irekitze bat izatean; erlazio eta funtzionamendu modu inklusiboak eta ekitatiboak esploratzeko eta eraikitzeko erronka erraztuz.

Prebentzioa

Hasieratik zaintza (ikus IZAN taulan) eta elkarbizitza batzorde bat sortu.

Talde akordiotara iritsi, errespetatu eta aldika berrikusi.

Gatazken kudeaketan formatu.

Emozioak askatzeari eta zailtasunez hitz egiteari denbora eta espazioa eskaini.

Zaintzak eta emozioak prozesu komunitario osoan zehar barneratu (erabakiak, lana, ospakizuna...).

Gatazka kolektiboak eta pertsonalak desberdindu. Hauek inplikaturako pertsonen artean lantzera animatu, taldean eragitera iritsi aurretik.

Ez onartzea, talde berri bat izateagatik, politizatu edo jende gaztearekin, botere erlazioak eta genero heteropatriarkalaren ikuspegiak errepikatuko ez direla.

Aldaketak ematen direla onartu eta horietara egokitu. Erosoak diren guneekin eta aldaketarako erresistentziekin lan egin.

Gatazkaren erabilera sendotu kulturartekotasunean eta bere autoestiman zaurituak dauden pertsonekin. Parte hartzaileen artean negozioazio kultural bat egotea, desadostasuna adierazteko gai izatea beraien talde kulturalaren edo komunitatearen praktika edo ideia batzuen aurrean. Pentsamendu kritikoaren gaitasunak estimulatzen dituen eraikuntzako giroa.

Egunerokotasunaren kudeaketa;

- Indarkeria matxistak ikustera eman eta salatu.
- Entzun, zure burua entzun, presarik gabe hitz egin...
- Autoezagutza eta autokritika, pazientzia, konfiantza, umiltasuna.
- Inter-kooperatu, ez adostasunarekin funtzionatzen ikasi, bai gutxiengo adostasunekin.
- Pertsona bakoitzaren denborak errespetatu, isiltasunekin bizitzen ikasi.
- Zurrumurruen aurrean ekin.
- Gauzak egintzat ez eman, ez epaitu, akatsak ez aurpegiratu, (auto)kritikoa izan.
- Jarrera positiboa eta proaktiboa mantendu.

1. Gatazken enkistamendua eta hedatzea zuzenean prebenitzen duten edo prebenitzeko jarrera indibidual eta taldekoak sustatzen dituzten mekanismoak (formazioak, batzordeak, denborak, akordioak, tailerrak, komunikazio-bideak...) ezarri ditugu?

Konponketa

Gatazkak identifikatu eta landu. Beste aldera ez begiratu eta ez pentsatu denborarekin konponduko direnik. Gaizki-ulertuei hasieratik aurre egin.

Gatazkak espazio zehatzetan landu, errespetuz eraikiak. Ez batzar nagusian, ezta pasilloetan ere.

Elkarbizitza eta zaintza batzordea: gatazka bideratzen saiatzen da, eta beharrezkoa bada, kanpoko aholkularitza bilatzen da. Batzordeak ondoren, lortutako konpromisoei eta aldeen eta komunitatearen osasun emozionalari jarraipena egiten dio.

Ez ahaztu zaintza gatazka uneetan.

Ez erantzun haserretik. Aurrean duzun pertsonaren jarrera berdina ez hartu. Ez nahastu gatazka baten edo zure jarreraren benetako arrazoiak.

“Gatazkatsua” den pertsona bileretara ez ekartzeak ez ditu beharrak konpontzen. Disidentziak alde batera uzten dituen itxitasun idilikoa.

Kaltea konpondu eta elkartu gintuen eraikuntza kolektiboko ideia nabarmendu.

Komunitateetan lotura sendoak sortzen dira, intentsitate berdina ez dute nahi, ez beti, ez guztiek. Agurrak edo desloturak prestatu eta onartu. Ez epaitu parametro tradizioaletik eta hegemonikoetatik. Ibilbide propioak errespetatu, ukatze pertsonal bezala ez sentitu.

Konpontzen ez diren tentsio kontzienteak eta iritzi edo estilo desberdintasunak daude, horrela onartzen direnak, positiboan egindako taldeko narrazio batekin eta hautaketatik (zuk erabakitzen duzu jarraitzea eta biktima edo errudun bezala ez kokatzea, hainbat alderditan uztea konpentsatzen dizun zerbait handiagoaren partaide baizik).

Indarkeria matxista, edota arrazista edota desberdinkeria egoeren aurrean, mugak modu kolektiboan ezarri eta konponketako formula propioak bilatu, kalteen konponketa, prebentzioa, babesa, enpatia eta ahduntzetik.

Komunitario mailan ausarta izan: atera ez dena, onartu ez dena kudeatzen jakin, prestatuak gaudenean berriz saiatu eta beste modu batera, galdetze etengabea, honek funtzionatzen du? beste talde eta une batzuen irtenbideak eta formula hegemonikoak agian guretzat ez dira baliagarri.

2. Gatazkak aurre egitea normalizatu dugu, espazio zehatzetan, errespetuzko eta zaintza espazioetan?

Gatazken konponketako formula propioak definitu eta aplikatu ditugu, modu kolektiboan adostu ditugun muga eta baloreetatik?

PLANIFIKA- ZIOA

Bai modu kolektiboan definitu dugun eraldaketa horizontea, bai hemen eta oraingo beharrak eta aukerak kontuan izanik, gure printzipioei eta baloreei erantzuten dieten urrats partekatu batzuk definitu eta hauek posible egitea:

- a) Nahi dugun hori eraikitze baldintzak (baliabideak, gaitasunak, kontaktuak...) sortu, posiblea den ezezagun hori gauzatu, komunitate inklusibo eta ekitatiboak bizitzeko eta proiektatzeko;
- b) Komunitarioa eta identitate kolektiboa den horren bizi ulermena sendotu eta finkatu.

1. Gure identitateari doitutako tresna espezifikoak hornitu, modu malguan planifikatzeko.

Gure ikuspegi estrategikoarekin koherentzia (ikus IZAN taula), epe luzerako helburuak definitu.

Diagnostiko bat burutu:

- Testuinguru diagnostikoa. Denboraren planifikazioa. Kokatuak gauden denbora-lekua presente izan.
- Mugen eta potentzialtasunen diagnostikoa (denbora, gaitasunak, kompetentziak, kide kopurua, tamaina, dirua, energiak, kontrola edo ez kanpo elementuen aurrean, hainbat kideren erresistentziak...).


Planifikazioa eta instintua: taldeak markatzen ditu erritmoak, uneak, aurrera egiteko edo gelditzeko beharrak; hobekien ateratzen den hori ikusten edo sentitzen joaten da, batzuetan modu espontaneo batean hobekuntzak barneratzen dira ahal. Hala ere,

- Instintua jarraitu, baina guztia zoriari utzi gabe.
- Ekimen indibiduala eta taldekoa sustatu, esparru komunitarioa ahaztu gabe.
- Modu paraleloan, mekanismo arinak ezarri, instintua jarraitzerakoan eman diren hobekuntzak kolektiboan partekatzeko, baita ikaskuntza indibidualak edo talde txikietan eman diren ikaskuntzak ere. Komunitatearentzat garrantzitsua bada, planifikazioan barneratu eta orokortu.

Berriz ere asmatzera irekiak egon, gure jakintza kolektiboetatik antolamendu behar berrien, antzezleku, partaidetza mota edo ikuspegi berrien aurrean, testuinguru berrien aurrean.

- Planifikatuaren berrikuspenerako une erregularrak ezarri, baina ez oso maiz. Egitea eta hausnartzea orekatu, erabaki hartzearekin lotuz.
- Kanal eta baldintza minimo batzuk ezarri, komunitateko edozein pertsonak biltzea proposatzeko aukera izateko, alderdi berri bat eztabaidatzeko. Bildu tokatzen denean.

1. Gure ikuspegi estrategikoa eta helburuak definitu ditugu? Diagnostikoa kontuan hartu dugu? Planifikazioa, sortzen doazen antzezleku berrietara eta hobekuntzetara modu moldagarrian egokitzeko mekanismoak ezarri ditugu?



2. Lortu ditzakegun erronkak jarri, erdibideko urratsekin. Pentsatu, eztabaidatu, idatzi soilik ez egin: saiatu

Helburu zehatzak jarri eta lortzen diren ala ez ikusi. Ikaskuntzak nabarmendu eta hurrengo planifikazioan barneratu. Zerbaitek funtzionatzen ez badu hobekuntzak sartzen joan unean bertan.

Lorpenak ospatu. Ondoren topaketa bat egin, hurrengo urratsak modu kolektiboan definitzeko.

Une bakoitzean komunitatearen tamaina desiragarria eta onar daitezkeen hori ezarri. Handia bada, erabaki hartze kolektibo bat burutzea zailagoa izan daiteke.

Mugak jarri zehaztutako helburuetan: ezetz esaten jakitea, lanak komunitatearen edo bertako hainbat kideren osasunean eragin positibo bat sortzen ez badu.

Ezarriko ditugun batzordeak eta lan taldeak erabaki, komunitatearen egiturazko beharrak betez eta pertsonen ekimenak jasoz.

Ekintza planean erantzukizunen eta zereginen banaketa bat barneratu.

Elkarren arteko zaintzarako mekanismo eta dinamika zehatzen planifikazioa barneratu; baita ezagutza kolektibo sustatzeko ere (elkartruke bidaiak, jakintzen elkarrizketa...).

2. Gure baldintzetan oinarrituz egin daitezkeen helburu zehatzak eta gertukoak finkatu ditugu? Planifikazioan, zehazki komunitatearen zaintzara bideratutako emaitzak, jarduerak eta baliabideak barneratu ditugu?

3. Planifikatu modu parte-hartzailean eta inklusiboan.

Aurretiko lanaren garrantzia: metodoa, antolakuntza, deialdia, rolak, zaintza.

Prozesua eta bere diseinua berdintasunezko partaidetzako baldintzetara egokitzea. (ikus EGIN taula: partaidetza).

Beharrezkoa den denbora eskaini (pentsatzeko eta eztabaidatzeko, argudioak emateko, meditatzeke), nahiz eta ondorioz metodologiak edo programak eta helburuak ez betetzera eraman, egokitu. Prozesua helburua baino garrantzitsuagoa da. Prozesuari denbora maximo batzuk eman.

Ahots gutxiei espazioa eman, bereziki ohiko moduan ahotsik ematen ez zaien haiei. Planifikazioan aldaketa bat sortzen da, lehen ikusten ez ziren alderdiak hautematean edo beste ikuspegi batetik begiratzen zirelako.

Planifikazioan eta planifikaziotik, ingurune seguru eta konfiantzazko bat izateko baldintzak sortu.

3. Planifikazio prozesua irekia, inklusiboa eta segurua bezala antolatzen eta sentitzen da?

ERABAKI DIMENTSIOA

BOTERE KUDEAKETA

Lehenengoek bidea egiten dute. Erreleboa handitu eta finkatu behar dute, bidea errazago egitea.

Sendotu, sendotu, sendotu, besteen eskuetan edo esku askotan askatzen eta uzten joaten ahal izateko.

GuanaRed: Talde dinamizatzailea, gaiak edo korronteak mugitzen dituzten eta beharren arabera biltzen diren lan taldeak edo nukleoak, beraien arteko sinkronizazioa Batzarrean.

EVA: Mugimenduari eragiten dioten gaietarako Batzorde Orokor bat eta bozka batekin parte hartzen duten komisio autonomo txikiak. Batzorde txikiak aniztasun eta partaidetza handiagoa egiten dute posible, gainera, beste mugimenduetara irekiak egoten dira.

Askatasun positiboa: pertsonak nahi, erabakitzen dutena eta egiteko gai direna, aukeratzeko posizioan eta baldintzetan badaude.

“Borroka ez da boterea hartzeko aldatzeko baizik”

ZEREGINAK ETA ROLAK

Inplikazioa beti ez da neurtzen ordu dedikazio handiago batekin. Pertsona baten bizitzako hainbat fasetan agian ezin du hain presente egon edo hainbeste lan egin, baina berdin dago inplikaturia.

GATAZKAK

Gatazka klasiko bat, aldaketaren aurrean hainbat pertsonak edo sektorek egindako ukapenaren ondorioz sortzen da. Aldaketak printzipioekin bat egin arren, batzordean onartuak izan eta planifikazioan barneratu arren, ekintzara pasatzean oztopatu egiten dira, mugimendu guztiak ez duelako apustu argi bat egiten hainbat aldaketaren aurrean. Zaintzen kudeaketa erantzukidearekin gertatzen da, hainbat erantzukizunetara emakume feministak barneratzean, lidergoen txandakatzean, zeregin guztien identifikazioa eta balorazioarekin...

Hau askotan finkatutako eta gainera, bere hasierako helburuak lortu dituzten komunitateetan gertatzen da. Eztabaidarako espazioak daude, baina pertsona askok ez du parte hartzen, beti pertsona berak proposatzen dute eta sektore batek konbentzionalak ez diren proposamenak gauzatzea blokeatzen du.

Beste alde batetik, finkatutako mugimendu hauetan gerta daiteke ere, kide berriek ez sentitzea hasierako posizionamendu politikoekin lotura berdina, ez direla modu berdinean kokatzen erresistentzian edo asalduran, zalantzan jartzea uzten dute eta kudeaketan ase sentitzen dira. Batzuetan, aldiz, kide berriak dira hainbat dimentsiotan aurrera egin nahi dutenak.

PLANIFIKAZIOA

Senti-Pentsa topaketa 2 urtero, komunitatea norantz doan erabakitzeko eta antolakuntza-adostasunak finkatzeko.

Denbora egoeraren araberakoa da, ez lerrokatua.

Zerbait planifikatu eta antolatzeko garaian jakintzak sortzen eta birsortzen dira, komunitatearen negoziazio kultura sendotzen den bitartean.

Egina inoiz ez da alperrik.

Ez da agenda bat izatea besterik, agenda politiko bat baizik.

Estuki planifikatua dena, dagoeneko barneratuta ditugun sistemako kodeekin burutzen dugu. Espero ez dena balioztatu.

EGIN DIMENTSIOA

1. Zaintzak teoria mailan egunerokotasunean esan nahi duen eta den horren ikuspegi partekatu bat izatera iritsi.

ZAINTZA

Zaintza bizitza erdian kokatzea da. Erantzukizun bat eskatzen du komunitatea (norberarena – intentzioskoa edo emana – eta zabala – beste herri eta pertsonen, eta naturaren bere osotasunean, zapalketa eta diskriminazioekin elkartasuneko zentzuan) osatzen duen guztiaren bizitzari dagokionez eta bizitza moduaren eraldaketaren bidean konpromiso bat, inklusiotik eta ekitatetik. Zerbait politikoa da, afektiboaz haratago doan zerbait, erresistentzia aktibo eta kolektiboaren oinarrian dagoelako.

Zaintzaz ulertzen duguna eta nola landu nahi/behar dugun komunitatean definitu.

Pertsona migratzaileek, bereziki emakumeek, egindako balio kulturala eta soziala kontuan izan, zaintzaren inguruko ikuspegi eta bizipenekin.

Emakumeen ordezkartza, botere eta partaidetza kupoetatik haratago; zaintzak eta pentsamendu kritikoa feministak barneratu.

Zaintzen batzorde bat eraiki, proposamenei, bere eraginari, etab. jarraipena emateko.


Komunitatearen memoria historikoa zaindu, eta behar izanez gero eraiki edo berreraiki.

Elkarbizitzako eta intimitate graduak definitu eta kudeatu. Pertsona bakoitzak bizitza-une bakoitzean, komunitatean duen bizitzan alderdi eta intentsitate ezberdinak nahi ditu (adibidez, partekatu edo ez: sukaldea, pasillo irekia, menpeko pertsonen zaintza, kutxa komuna, elikagaien ekoizpena eta banaketa...). Aukera komunitarioa ezarri eta aldika berrikusi.

Komunitate afektiboa (ekimenaren kide guztiarekin gradu berdinean ez ematea gerta daiteke), zaintzaren komunitatetik (erantzukizun partekatuan oinarritzen dena, bizitzaren etika batetik, bizitzaren plano guztietan) desberdindu.

1. Zaintzagatik ulertzen dugun horren ikuspegi partekatu batera iritsi gara, gure memoria historikoak, pentsamendu feministak, pertsona migratzaileek, bereziki emakumeek, ematen duten balioa barneratuz?

Errespetutik eta erantzukizunetik, partekatu nahi ditugun elkarbizitza eta intimitate graduak ezarri ditugu?



2. Konfiantza eta segurtasun espazioak eta giroa, pertsonen ahulezia eta aniztasuna onartuz. Komunitarioa, zu zeu eta aske izan zaitezene leku bat bezala sortu, kide guztiek parte hartzeko eta beren desioak, desakordioak, minak, ideiak, konpetentziak... partekatzeke gai sentitzea eta borondatez.

“Umore batzorde” bat sortu, puntu zailak ikuspegi barregarri batetik lantzeko.

Lorpenak ospatu. Jan, dantza egin, barre egin.

Sozializazioko espazio informalak, lasaiak eta espontaneoak sustatu eta balioztatu.

Gizonen zirkuluak eta emakumeen zirkuluak sortu: genero identitateak partekatzeke eta lantzeko beharra.

Onartzen dugun horren mugak jarri, tratatuak izateko modua bezala.

Gozatzea sustatu jarduera eta ekintzetan: ongi pasatzen bada konpromisoak hobeto betetzen dira eta inplikazioa sendotzen da.

Gelditzen jakitea zaintzaren alde bat bezala:

- Atsedean eta deskonexio espazioak eta denborak sortu eta errespetatu: kafea hartzeko, isiltasuneko gelak, paseoak kanpora...
- Sozializaziorako espazioak eta uneak bilatu.
- Egitean eta mugak jartzean zenbat energia inbertituko dugun neurtu.

Nola gauden jakiteko denbora eskaini (adib. hamabosteroko bilera laburrak): komunitatearen osasuna.

Saioen hasieran, kohesio, konfiantza... dinamikak burutu. Saioen amaieran eskertu eta positiboa izan dena nabarmendu.

Arrazoizkoak ez diren tresnak erabili. Emozioak eta gorputza landu: jolastu, teknika artistikoak eta antzerki teknikak.

Enpatiarako mekanismoak finkatu: beste pertsona edo taldearen lekuan jartzearen ariketa egin (rol jokoak, antzerkia...). Ez gutxietsi, ez pentsatu gurea bakarrik dela ona... Elkartzen eta motibatzen duena bilatu, partekatu.

Laguntza eskatzea beti aukera bat dela barneratu.

Propositiboa izan eta beldurrik ez izan egiazko erlazioak sortzeko.

